

7000 zenbaki elkarrekin

TTPI-TTAPA

eta aitzinera



2017ko abenduaren 14a | XXXVII. urtea



14-18 DIC
2017
WINTER STYLE
OUT-LET

Irún
POLÍGONO
ARASO
SALIDA
APB 7

11:00 - 21:00 ABENDUA

Outlet desberdin bat. Lehenengo marketako arropa, 15.000 jantzi baino gehiago eta kalitate oneneko osagarriak prezio ezin hobeetan.

GERTURATU ZAITEZ
WINTER STYLE OUTLET
2017 BISITATZERA!

www.winterstyleoutlet.com
[@winterstyleoutlet](https://twitter.com/winterstyleoutlet)



14 Osteguna

15 Ostirala

16 Larunbata

17 Igandea

18 Astelehena



Eguberrietako haur parkea

Abenduak 22 - urtarrilak 4

Abenduak 24, 25, 31 eta urtarrilak 1 itxita

15:00 - 20:00
FICOBA. Irún

ZATOZ PRIMERAN PASATZERA!
Leku mugatuak



pin.ficoba.org



KOMUNIKABIDEAK → ZENBAKI BEREZIA

700. alea opari eta guzti

Aldizkaria sortu zenetik 37 urtera, 700 ale kaleratu ditu Ttipi-Ttapak

Orain arteko diseinua aldatuz, itxura berria hartuko du berandu gabe TTIPI-TTAPA aldizkariak. Orain arteko atal berak mantenduko ditu, baina diseinu berriak estreinatuko ditu Tokikom plataformaren barne dauden bertze tokiko aldizkariekin batera.

TTIPI-TTAPA

Zortzi urte pasatu dira TTIPI-TTAPAK bere 500. alea atera zuenetik. Zenbaki borobila izan zen, bai horixe! Eta nola diren kontuak, esku artean dugun aldizkari honen zenbakia ere ez da inolana hiko, TTIPI-TTAPAREN 700.a da!

Badira 37 urte TTIPI-TTAPA sortu zela. Geroztik, Baztan, Bertizarana, Bortziriak, Malerreka, Leitzaldea, Urumealdea eta Xaretako kontu azkarki agertu dira aldizkarian. Gehiago edo guttiago, baina eskualdeko 46 herritako berriak azaldu dira TTIPI-TTAPAN.

Urteotan, aldizkaria ere aldatu da: itxura, gaiak, langileak, laguntzaileak... Garaian garaiko behar eta edukietara ere moldatu behar izan

du TTIPI-TTAPAK, eta horri esker, eskualdeko eta kanpoko etxe aunitzetan sartu da. Datuak dira lekuko. Gaur egun, 6.000 harpidedun ditu TTIPI-TTAPAK eta aldizkari irakurriena da gure eskualdean. CIES ikerketa enpresaren azken datuen arabera, 26.000 irakurle ditu TTIPI-TTAPAK, eta liderra da eskualdean. Are gehiago, CIESek Nafarroa Garaiko mendi-

700. ale honek 66 euskal kantez osatutako liburuxka dakar, harpidedunentzat opari.

Eta hori elkarlan sare handi baten emaitza izan da. TTIPI-TTAPA ez bailitza-teke den hori izanen herritarren laguntzarik gabe: irakurleak, berriemaileak, kolaboratzaileak, iragarleak, laguntzaileak, banatzaileak... Horiei guztiei esker dago TTIPI-TTAPA dagoen tokian.

Ezin dugu aipatu gabe utzi Interneteko ataria. 1996an Interneterako saltoa egin zuen TTIPI-TTAPAK. Eta 2015az geroztik, *Xorroxin* irratiarekin elkarlanean elikatzen dute *erran.eus* ataria. Teknologia berrietara egokitzuz, aplikazioa ere badu *Erranek*. Honi esker, TTIPI-TTAPA aldizkaria eta *Xorroxin* irratia elkarrekin daude eskuko telefonoetan eta tabletan.

MAKETA BERRIAK

500. zenbakiaren ondotik, diseinu berriak estreinatu zituen TTIPI-TTAPAK. Ale berezia borobiltzeko keinu bat izan zen. Bada 700. zenbakiaren ondotik ere aldaketak etorriko dira. Diseinu berriak, zehatzago erranda. Urrats hori ez du bakarrik eginen TTIPI-TTAPAK. Tokikom Euskal Herriko tokiko komunikabideak biltzen dituen sarean sartua da TTIPI-TTAPA, eta hor dauden hemezortzi tokiko aldizkarik edizio sistema eta artxibo bateratua izanen dute. Hau da, maketak zein edukiak partekatze aukera izanen dute. Gainera, berandu gabe etorriko diren aldaketak izanen dira.

ZENBAKI BOROBILA OPARI ETA GUZTI

700. ale honek opari berezia ere badu: 66 euskal kantez osatutako liburuxka, hain zuzen. TTIPI-TTAPAKO harpidedun eta laguntzaileen artean banatzeko 7.000 liburuxka egin dira. Urteurren berezi honetan, irakurle, berriemaile, kolaboratzaile, iragarle, laguntzaile, banatzaile... Horiei guztiei eskerrak eman nahi dizkiolako TTIPI-TTAPAK.



TTIPI-TTAPA aldizkariak itxura berria hartuko du heldu den urtean. Gaur egun, aldizkariak dituen atal guztiak mantenduko dira, baina itxura aldatuz. TTIPI-TTAPA aldizkaria bezala, eredu bera segituko dute Tokikomen barne dauden hemezortzi aldizkarik.

Uztaren bihiak



1986

«Azken urteotan, emakumezkook joareak paratu eta herriari buelta eman izan diogu. Baina beti goizaldera, sobera ausartu gabe. Aurten, igande arratsaldean, sei emakume karrikara atera ginen joareak jotzera».

Iturengo emakumeak joareekin

Iturengo inauterietako *booma*
TTIPI-TTAParen 15. zk. 1986ko apirila



1991

«Esan daiteke nire familian pilotaz besterik ez dela hitz egiten eta nire anaia zaharrenak ere horretan aritzen direnez, ez dut zalantzarik izan zein kirol praktikatu nahi nuen erabakitzerakoan. Edozein momentu aprobetxatzen dut pilotan aritzeko».

Aimar OLAIZOLA

Goizuetako pilotaria
TTIPI-TTAParen 76. zk. 1991ko abendua



1993

«Nahiz eta lan ona egin, gehienetan talde galtzaileak arbitroei botatzen die errua. Futbolaren ardi beltzak gara. Marrazain moduan nengoenean, jendeak beti zerbait botatzen zidan. Partida bukatzerakoan kanpoan itxoiteko eta horrelakoak esan dizkidade».

Mikel ITURRARTE

Leitzako arbitroa
TTIPI-TTAParen 109. zk. 1993ko maiatza



1995

«Bertsolaritza matxista izan den heinean, bertsogintza ere matxista izan da. Emakumeak sartzearrekin gehiago neurtzen dituzte hitzak, eta ez dute lehen bezalako astokeriarik erraten. Berdintasun baterako lehen pausuk ematen ari gara».

Estitxu AROZENA

Lesakako bertsolaria
TTIPI-TTAParen 156. zk. 1995eko apirila



2004

«Sendagilearengana beti eri gaudenean joaten gara, baina sendabelar aunitzek eritasuna ailegatu aitzinetik neurriak hartzeko balio dute, eta aunitzez hobe da gaitzak etorri baino lehen norbere gorputzarekin lan egitea».

Arantxa ZUBIETA

Sendabelarretan aditua den beratarra
TTIPI-TTAParen 374. zk. 2004ko maiatza



2007

«Normaltasunean biziko bagina ez gukeke lesbiana, gay, bisexual eta transexualen elkarten beharrik izanen. Eskualdean, aunitzetan, Iruñea, Donostia edo urrutirago joan behar dugu errespetatzen gaituen inguru batean lagun taldea osatu edo bizitzera».

Hasier LARRETKEA

FELGTko teknikari arraioztarra
TTIPI-TTAParen 446. zk. 2007ko maiatza



2008

«2002az geroztik egiten da Bertizaranako Eguna eta hasiera-hasieratik helburua bailara mailako besta bat egitea izan da. Bertizaranako hiru herriak elkartu eta bailara bezala bizirik gaudela adierazi nahi diogu jendeari».

Maria LARRETKEA eta Miren IRISARRI

Bertizaranako Egunari buruz
TTIPI-TTAParen 471. zk. 2008ko maiatza



2010

Sorginak zirela leporatuta, Logroñoko auzitegiko inkisidoreak hainbat herritar zigortu zituen, gehienak zugarramurdiarrak. 1610eko udazkenean, horietatik hamaika sutan erre zituzten, sei bizirik utzi, eta bertze bortz giza iruditan.

Zugarramurdiko epaiketa

Sorgin ehizaren 400. urteurrena
TTIPI-TTAParen 512. zk. 2010eko otsaila



2012

Nafarroako konkistaren 500. urteurrena gogoan, *Haien ametsa gurea* izeneko ikuskizun artistiko-musikala prestatu zuten Amaiurren, «Nafarroa libre baten alde beren bizia eskaini zuten guztiak omenduz». Ehun bat lagunek parte hartu zuten.

Kike OTAEGI eta Juan Mari ALEMAN

Amaiurko ikuskizuneko parte-hartzaileak
TTIPI-TTAParen 570. zk. 2012ko uztaila

Berriemaile historikoak

Zer diote TTIPI-TTAPAN urte gehien aritu eta ari diren berriemaileek?



«TTIPI-TTAPA gure etxeetara ailegatzeko hasi aitzin, ez genuen ia deus ere euskaraz idatzirik ikusten»

Koro IRATZOKI | Zugarramurdiko berriemailea

Hogoi eta gutti urtetako neskatxa bat bezala irudikatzen dut nire burua TTIPI-TTAPARAko berriak bidaltzen hasi nintzenean. Elizondoko Lanbide Eskolan lan egiten nuen, han zegoen baita Trini Mikelarena ere, TTIPI-TTAPAKO sortzaileetarikoa bat. Trini proiektua aurkeztu eta parte hartzerari animatu ninduen. Nik, gutti aski baitut, segidan baietz erran, eta Zugarramurdiko kontuak partekatzen hasi nintzen.

Erratan den bezala, *¡qué tiempos!*. Oker ez banago, orduan hiru hilabetetik behin bidaltzen genituen berriak, eta berriez gain, literatur edo ipuin idatziak ere argitaratzen ziren. Argazkiak, berriz, karretekoak

«Gaur egun, TTIPI-TTAPAKO bulegoa toki argitsuan dago. Haatik, ez da beti hala izan, eskailera azpian ezagutu ditut»

ziren, eta TTIPI-TTAPATIK lau-sei argazki ateratzeko karrete ttiki batzuk hartzen genituen. Beraz, kasu haundietan ibili behar genuen argazkiak ateratzekoan.

Gaur egun, TTIPI-TTAPAKO bulegoa toki zabal eta argitsu batean dago. Haatik, ez da beti hala izan: Harry Potterren gisan, eskailera azpi batean ezagutu ditut nik Joxe Manuel eta gainerakoak lanean.

Baina aldaketak direla eta, nire ustez, aldaketa haundiena euskaraz irakurtzearen ohituraren eman da. TTIPI-TTAPA gure etxeetara ailegatzeko hasi aitzin, ez genuen ia deus ere euskaraz idatzirik ikusten (beharbada Arantzazuko egutegia edo halako zerbaite). Euskaraz irakurtzea arrotza eta zaila egiten zitzaigun, eta Ttipi-Ttapan lan haundia egin zuen jendea «alfabetatzen».

Aldizkari hunek ongi emana du bere ize-na: ttipi-ttapa, ttipi-ttapa baita urrun ailegatzeko manera... eta horretan ari gara.



«Behin, erietzeko telefonotik bidali nituen berriak erredakziora. Ikaragarria iruditzen zitzaidan huts egitea»

Esteban AROTZENA | Goizuetako berriemaile izana

1990. urtea zela uste dut. Lesakako pilota-plazan topo egin nuen Pello Apezetxearekin eta elkar agurtu bezain pronto luzatu zidan TTIPI-TTAPAKO berriemaile bezala hasteko gonbita. Nik ordurako *Eginera* bidaltzen nituen astero hiru kronika. Beraz, ez zitzaidan hain lan zaila iruditu. Agudo konturatu nintzen pentsatu nuen hori ez zela egia osoa.

Gauregun, Goizuetako orriaren zati handi bat argazki betetzen den bezala, orduan alderantziz izaten zen. Artxiboko irudien bat gehienetan, eta segur aski arrotz jende gutxi irakurriko zuen parrafada azpian. Nola bestela? Ni argazkilari eskasa izatearen arazoari karreteak erredakziora helarazteko zailtasunak gehitu behar zitzaizkion. Ezagunen bat Lesakara zihoala enteratzen banintzen, berari ematen nion karretea lru-bide tabernan utz zezan. Handik Aitorrek jasotzen zuen. Bizpahiru urtez, Antton Erkizia herriko CANen egin zuen lan. Bera zen nire argazkilaria eta garraiolaria. Bi faktorengatik kalitatean irabazi zuen Goizuetako kronikak.

Hasieran, pentsatu bezain lan erraza ez zela esan dut lehen, askotan gertatzen baitzitzaidan azkeneko eguna ailegatu eta eskuetan deus ez edukitzea. Halere, beti zeozer lortzen nuen. Eta beti diodanean beti da, 20 urtez ez baitzen ale bat bakarrik ere kaleratu nik sinatutako kronikarik gabe. Behin dozena bat egun egin nituen ospitalean, eta orduan ere, Pili andrearen berriak jaso ondoren, erietzeko itxarongela bateko telefonotik bidali nituen. Orduan ikaragarria iruditzen zitzaidan huts egitea. Gaur egun, lasaiago hartuko nukeen segur aski. Oraindik harreman zuzena mantentzen dut TTIPI-TTAPAREKIN. Noiznahi idazten diet Aitor edo Gurutzeari. Gehienetan, Goizuetako berri bereziren bat bidaltzeko, eta gutxitan, aitzakiaren bat emateko. Ea beste 700 kaleratzen dituzuen. Eta guk irakurtzen ditugun. Hala bedi.



«Euskara bultzatu eta nire herria ezagutzera emateak animatu ninduen berriemaile izatera».

Juana Mari SAIZAR | Aresoko berriemaile izana

Duela 26 urte, larunbat santuko emakumeen afariko argazkia TTIPI-TTAPARA bidaltzearekin hasi zen nire kontaktua. Ordurako ezaguna zen inguruan aldizkaria, baina Aresoko berriemaile ez zegoen. Lan hori egiteko nirekin jarri ziren kontaktuan eta horrela hasi nintzen lan honetan. Hasiera batean, berriak telefonoz hartzen ziren, testuak idazten moldatzen nintzen, baina argazki kontuekin lan asko izaten nuen. Kamerako karrete osoak erabiltzeko zailtasunak ez zuten laguntzen presako argazkiekin. Leitzan bazen argazkilari bat, eta bere dendako gela beltzean karreteak puskatzen zizkidan, argazki kopuruaren arabera. Horrela, balio zuen puska hartu eta

«Batzuetan, karretea moztua zegoela abisatzea ahaztu eta irekitzean, argiaren kontaktua-ekin argazkiak galdu egiten ziren»

tubo beltz batean bidaltzen nuen TTIPI-TTAPARA. Hala ere, batzuetan, moztua zegoela abisatzea ahaztu eta tubo hori aldizkarira iritsi eta irekitzean, argiaren kontaktuekin argazkiak galdu egiten ziren.

Araoak arazo, gauza on asko gertatu zaizkit. Harremanak egiten lagundu dit, jendea eta herriak ezagutu ditut, urteko bazkari ederrak aipatu gabe ezin utzi, jatetxe askotan ibili naiz eta otordu bikainak konpainia ederragoarekin. Esperientzia ederra izan da.

Aldizkariak eta herritarrek harreman polita daukate eta etxeetan bere tokia egina dauka hamabostero. Aldizkari langileekin ere, oso giro goxo eta lasaia izan da, esker onak eta hitz politak.

Gauregun, informatikako aurrerakuntzek lana erraztu dute komunikatzeko, informazioa lortu eta argazkiak bidaltzerako orduan. Nahiz eta lana eta lotura dakarren berriemaile izateak, euskara bultzatu eta nire herria ezagutzera emateak animatu ninduen.

**Nire txanda**

Fernando ANBUSTEGI

700

700! Alajaina! Ttipi-Ttaparen 700. zenbakia da hau. Eskualdean, ekintzaile batzuk elkartu eta Ttipi-Ttapa aldizkaria argitaratzea erabaki zutenetik urte aunitz pasa dira, kasik nire urteak adina. Guttiago dira nik atal honetan hizkiak elkartu eta esaldiak osatzen hasi nintzela, baina badira jada urte batzuk. Ttipi-Ttapa, urte luze hauetan eskualdeko etxe gehienetan sartu da, bidelagun izan dugu, eta dugu. Hamabortzero gure etxetan sartzen da, gure familietako parte da. Zain dezagun bada, maita dezagun bada, eta balora dezagun bada, gure senide den heinean. Mundu globalizatu honetan are garrantzi suagoa da bertakoek bertakoa kontsumitzea, bertako produktuak, bertakoek ekoiztiak. Eta, zer da bada Ttipi-Ttapa? Bertakoa, etxekoa. Zain dezagun familia, zain dezagun bertakoa! Aunitz urtez, aunitz aiez, Ttipi-Ttapa!»

«Eta, zer da bada Ttipi-Ttapa? Bertakoa, etxekoa. Zain dezagun familia, zain dezagun bertakoa! Aunitz urtez, aunitz aiez, Ttipi-Ttapa!»

Ezpala

Aitor AROTZENA

Zimiko berri

Ume garaian, lagunen bat eskolara jertse edo galtza berriekin etortzen zenean besoan zimiko gogoz egin eta *Zimiko berri* erraten genion, inbidia azaleratzeko edo. Gaur egun, maiz xamar estreinatzen dute arropa edo oinetakoa ume aunitzek eta nobedadeak ez die halako grinarik eragiten. Hortaz, Olentzerok ator berria ekartzen dienean azpian begiratuko dute: *Eta Nintendoa?*

NabarmentzekoakBixente FAGOAGA
Eztegara frontoiak 75 urte

Berako frontoia eraiki zela 75 urte bete dira eta eskuz binakako txapelketako lehen partida hartu du. Obran lan egin zutenen artean bizi den bakarrak bota zuen sakea erabakitzeke txapa.

Toti MARTINEZ DE LEZEA
Txondorra piztu du Irrisarrin

Laugarren urtez txondorra piztu dute Igantziko parkean eta idazle eza-guna arduratu da sua emateaz, bere lanetan mitologiaren bidez eskal kultura zabaltzen egin duen lana sarituz.

Martin IRIGOIEN
Elizondoko koralean 60 urte

Elizondoko abesbatzak ere 75. urteurrena ospatu du aruten. Urte osoko egitarua borobiltzeko eskainitako kontzertuan, abesbatzan 60 urte daramazkin abeslaria omendu zuten.

Atzera begira → 2007-XI • LURRA 48. zk**Olentzeroaren tradizioari buruzko liburua argitara Lesakan**

Olentzeroren tradizioa Lesaka eta Euskal Herriko Eguberrietan liburua argitaratu zuten duela hamar urte, Eusko Ikaskuntzaren eskutik. Liburuan artikulu bat idatzi zuen Rafaek Eneterreagak Lurra aldizkariari aipatu zionez, «ez dakit Olentzeroa Lesakakoa den, baina hemen ez da behin ere ohitura galdu. Aita Barandiaranek erraten zuen Lesakan mendez mende kantatu dela». Liburuaren proiektua bultzatu zuen Laura Igantzi zinegotziak aipatu zigunez, «Baztanen, Lizarran, Tuteran, Iruñean, Iruenen... atera ziren lehenengo Olentzeroak Lesakan izan zuten erreferentzia».

Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 635458 • Faxe (+34) 948 635457 • whatsapp: 744 484361 • info@ttipi.eus



Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredakzioa** Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola, Nerea Bazterrika **Publizitatea** Usoa Vicente, Amaia Odriozola, Arantza Agirre **Berriemaileak** Arkaitz Mindegia, Josebiñe Agirre, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Iruñe Elizagoien, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Joana Guerediain, Martin Bertiz, Mattin Larraide, Juan Mari Barriola, Iñigo Imaz, Marga Erdozain, Maitane Maritorea, Arantxa Iturralde.

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Malerrekako Zerbitzuen Mank.

2017ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	36€
Leitza	22€
Hego Euskal Herria	42€
Ipar Euskal Herria, Europa	75€
Amerika eta Australia	130€

Nafarroako Gobernua **Gobierno de Navarra**



Bortzietako Euskara Mankomunitateak diruz lagundua



Kolaborazioak

Ttipi-Ttaparen miraria

Pello APEZETXEA ZUBIRI

Duela hogeita hamazazpi urte hasi zen bidea egiten, Beran, hilabetetik-edo ale berria salgai jarritz denda eta ostatueta.

Urte batzuk joan eta, aldaera nabarmena: hamabostekari bihurtu eta zonaldeko hainbat herriren berri emaille: Bortziriak, Malerreka, Baztan, Leitzaldea, Xareta. Izaera erabat aldatua, aunitzez erakargarriago bilakatu zen, jendeak bere herriko berriak maite baitzuten; bere herrikoak eta hurbileko herrietakoak.

Hurbileko berriak maite, baina, euskaraz izanik, leitu zitegun? Zenbatek leitzen zuen? Niri Etxalarko zenbait jendek erran zidatela oroitzen naiz, 60 eta 80 urtekoek, lehen aldiz ari zirela beren bizitzan euskaraz leitzen, nahiz eta ez aisa egin. Ez dakit noraino ohar-tu garen, TTIPI-TTAPAK euskararen erabileran izan duen eraginaz.

Aldatzeak lanerako tokia handitzea eskatzen baitzuen, Etxalarren egin zituen urte batzuk, eta Lesakan du gaur egun leku argitsu eta alaia.

TTIPI-TTAPA indartzeak lana ugaritu zuen, eta horrek eskatzen duen gastua ere bai. Tresna eta material gehiago behar, eta, nola ez, langile gehiago. Hasmentako bizpahiruak bederatzi dira egun. Eta nork ordaintzen zuen? Eremuko Udal gehienek eskua zabaldu zuten, gehiago edo gutiago, eta horretan segitzen dute. Nafarroako Gobernuak ere bai, zenbait urtez, gorabehera nabariekin. Bi milako lehen hamarkada eta erdian Iruñea aldeko soinuak okerrera aldatzen joan ziren, hango laguntza ia arrunt galtzeraino. Eskerrak, Euskal Autonomi Erkidegotik estaltzen aritu ziren, urte batzuz, Nafarroatik gelditutako zuloa. Eta eskerrak, publizitatearen eragina ere sartu zen aldizkarian, gaur egun alderdi horren egoera hain egokia ez bada ere.

Norbaitzuk galdemodua eginen dute, zer dela eta TTIPI-TTAPA aldizkariaren bizitza kontatzea. Hemen idatzitakoak ez du, noski, aldizkariaren historia osoa gogoratzen, zenbait gertaera baizik, nola-hala zerrendatuak. Baina jendeok izaten dugu gertatutako batzuz oroitzeko ohitura, gure uestezko data bereziak direla eta. Begira, bada, TTIPI-TTAPAK 700. alea bete du. Eta hori ez da nolana hiltzen ahal. Nolabait markatzeko, mirari gisako bat dela erranen nuke nik.

Dena den, zorionak TTIPI-TTAPARI. Zorionak ardura nagusia eraman duen Joxe Manuel eta bere lagun egile guziei.

«Niri Etxalarko zenbait jendek erran zidatela oroitzen naiz, 60 eta 80 urtekoek, lehen aldiz ari zirelaren bizitzan euskaraz leitzen, nahiz eta aisa ez egin. Ez dakit noraino ohar-tu garen, TTIPI-TTAPAK euskararen erabileran izan duen eraginaz»

Bota pare bat

Mikel TABERNA IRAZOKI Kapi

Aspaldiko kontuak dira. Oroitzen naiz erran zidatela nirekin solas egin nahi zutela, ea joan ote nintzen Altxateko plazara honelako tenorean, honelako ordutan. Ni xintxo-xintxo agertu, eta hantxe nituen esperoan nire adin bereko mutila eta gu baino urte batzuk gehixeago zituen neska. Jakin nahi zuten zer iruditzen ote zitzaidan Beran aldizkari bat euskara hutsean argitaratzea. Ez nien adierazi egiantan pentsatzen nuena. Beran erdaldunak eta erdazaleak ikusten nituen nagusi. Ez zuen bide luzerik eginen euskaraz bakarrik argitaratzu gero. Ordea, ez nien ilusiorik erre nahi izan: animatu nituen. Zernahi egin da ere, ni laguntzeko prest nintzen. Denbora hartan bertsolaritza deskubritzen ari nintzen, eta nik horretaz zerba it eskribituko nuela agindu izan behar nien. Orain baino lotsagabeagoa nintzen. Horixe erranda alde egin nuen. Hantxe utzi nituen biak, plazako petrelean jarrita. Bi ero, amets bat burutan. Ez dakit zer eta nola egin zuten, baina kontua da handik guttira TTIPI-TTAPA jaio egin zela. Noiz izan ote zen hori? Hasi naiz bilatzen galdu nahi ez ditudan paperak eta gauzak altxatuak ditudan armairuan. Kutxa baten barrenean agertu zaizkit harrapatu nahi nituenak. Lehenbiziko TTIPI-TTAPA hark '1981eko negua' paratzen du azalean, non Juan Inazio Larramendik eginiko marrazki ederra ere ikusten ahal den: bota pare bat, aldizkariaren marka izan zena hasmentako boladan. Oinetako parea, bidea egin nahi duen edozein ibiltarientzat gauza prezisosa»

«Lehenbiziko TTIPI-TTAPA hark '1981eko negua' paratzen du azalean, non Juan Inazio Larramendik eginiko marrazki ederra ere ikusten ahal den: bota pare bat, aldizkariaren marka izan zena hasmentako boladan. Oinetako parea, bidea egin nahi duen edozein ibiltarientzat gauza prezisosa»

Oinetako parea, bidea egin nahi duen edozein ibiltarientzat gauza prezisosa. Azal hura altxatu, eta lehenbiziko orrialdean hitz hauek begien bistara: «Solaz ongi eginagatik, euskeraz leitzen eta eskribitzen erakutsi ez dizuetenei, bihotz-bihotze». Zoragarria. Barrenean, testuak eta iduriak, nor nahik eginak eta denetik: dena zen libre eta gai guziak sartzen ahal ziren (baina euskaraz). Lehenbiziko pausoak Beran eman bazituen ere, abudo hasi ziren inguruko herrietako berriak ere agertzen. Gaur egun, Baztan-Bidasoaldea-Mallerreka-Leitzaldea-Lapurdikoko puska... Zenbat etxetara sartzen ote da? Zenbat jendek ez ote dugu elkar ezagutu eta harremana izan aldizkaria dela medio? Bota pare hark makina bat ume egin ditu denboraren poderioz. Tokitan gelditu dira nire pentsamendu ezkor haiek! Eskerrik asko aunitz, aldizkari hau ttipi-ttapa ibiliz honaino ekartzen lagundu duzuen bidegile guziei!



Irakurleak mintzo

Baztandarren Biltzarra kolokan

Baztandarren Biltzarra Elkartea

Orain dela hilabete baztuk erran genuen bezala, Baztandarren Biltzarra Elkartea hausnarketa urtean dago.

Orduan aipatutako zailtasunei bertze arazo potolo bat gehitu behar diogu: orain arte ginen kide kopuruarekin nahiko larri ibiltzen ginen besta aitzinerat ateratzeko; honekin ez aski, azken hilabeteetan kide kopurua jautsi egin da. Hortaz, eta egoera

sakonki aztertuta, **kide berriak sartzea ezinbertzekoa da.**

Honi konponbidea bilatzeko, datorren abenduaren 29rako BAZTANDAR GUZTIEI zuzenduriko bilera bat deitu dugu. Bilera Arizkuneko sabaian izanen da, 20:30ean.

Egun horretarako behar adina kide berri hurbiltzen ez badira, erabakia argia da: **EZ DA Baztandarren Biltzarra BESTA EGINEN.**

Bitartean, gurekin harremanetan jartzeko hainbat bide eta modu erabil ditzakezue: elkarreko kideengana hurbil-

du, *baztandarrenbiltzarra@hotmail.com* helbidera mezu bat idatzi, *facebooka*, abenduaren 29ko bilera...

Atea denendako irekita dago!

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.eus

Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**

Tel.: **948 63 54 58**

Faxa: **948 63 54 57**

Prentsatik bildutakoak



«Batzuetan mutilaren hitzak gehiago balio du, automatismo bat da. Emazteak ere lekua behar du. Neskei buruan sartu behar diegu ez dela zerbait negatiboa emaztea izatea eta ardurak ukaitea. Batzuetan, iduri du, barkamena eskatu behar dugula espazio publikoan gu agertzen bagara, eta ez mutil bat. Zure burua gai ikusten baduzu, ez duzu gutiago balio».

«Feminismoak bertze mundutik datorren zerbait dela iduri du, eta feministak garenak historikoak-edo izaten ahal garela... Entzuten ahal dugu 'boz esku-bidea aspaldi lortu zenuten; zer ari zarete?'. Arazoa ez deno bistaritzen, hor segituko du». «Emazteak ere ohartu behar du arazo bat badela. Gaur egun, anitz ez dira ohartzen zerbait jasaten ari direla»

Leire ERRANDONEA
Antzinako kidea beratarrar
Ipar EH Hitza 2017.11.24

Armelle ETXENIKE
Antzinako kide senperrarra
Ipar EH Hitza 2017.11.24

11 galdera labur

Nor da Xabier Zubeldia?

Donezteben bizi den saldiastarra.

Zein zaletasun dituzu?

Inguruko txokoak ezagutzea, tarteka kirola egitea eta bereziki kotxe zaharrak moldatu eta ibiltzea.

Rallyan ibiltzen omen zara...

Betidanik gustatu izan bazait ere, aurten hasi naiz. Ibardingoa, Urbasakoa eta Malerrekakoa egin ditut.

Zer eskaintzen dizu rallyak?

Nik egindako 'makina' eta inguruko errepideez gozatzeko aukera ezin hobea.

Ikasteko entrenatu behar...

Gu inguruko zirkuitoetan ibiltzen gara: Pau, Los Arcos, Miranda de Ebro... Ingurukoekin ibiliz eta akatsak eginez, pixkanaka, ikasten da.

Non izanen dugu hurrengoak ikus-tekotekoa?

Heldu den urterako dezente antolatzen ari dira, 30-50 kilometroko radioan. Gazteria gogotsu eta fundamentoz ari da! Nik, pertsonalki Doneztebetik Goizuetarako bidea eginen nuke gustura.

Zein da gidari ona iza-

teko sekretua?

Baldin banek esanen nizuke! (irriz). Lanak ongi eta konstantiaz egitea, akaso... Asko entrenatzea eta kotxearekin bat egitea ere inportantea da.

Zer du Saldiasek beste herriek ez dutena?

Lasaitasuna eta kokapena.

Asteburuko planik hobereena?

Kotxea hartu eta 100-200 km egitea, mendira edo kostara joanez. Otordu pare bat, nonbait edo nolabait bainu bat hartu eta besta eder batekin borobildu!

Inguruko xokorik politena?

Leurtzako urtegiak.

Amets bat?

Nire afizioekin segitzea eta inguruko herrietatik gazteriak hirira ez alde egitea. Egun zail dago, herri txikietako lan faltak jendea kanpora bultzatzen baitu.



Xabier ZUBELDIA → Saldiasko gaztea

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu
© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzaillea
jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 · BERA

okane
HARATEGIA / URDAITEGIA
Eñaut & Nekane
Etxera eramateko zerbitzua urte osoan
T. /Fax: 948 630 018 Kanttonberri 12 · BERA

Osatuz
Psikologia- Psikoterapia
Haurrak-helduak
Garbiñe Goia Irazoki
FAMILIA TERAPEUTA
TERAPEUTA GESTALT
619343755
Altzate1. Bera

ERRANDONEA, s.l.
BILTEGIA 948 630 102
ANDER 687 736 929
Bidasoa, 76 - atea 21-22
31780 BERA

JAIONE - GOKOTEGIA
948 630 786
Altzate, 21 · BERA

BERA

KIROLA → AZAROAREN 24AN

Eskuz binakako txapelketa hasiz ospatu dute Eztegararen 75. urteurrena

Olaizola II.ak eta Imazek 22-13 irabazi zieten Ezkurdia eta Zabaletari

TTIPI-TTAPA

EPELen ezkuz binakako pilota txapelketa nagusiko lehen partida

75 urte bete berri dituen Eztegara pilotalekuan jokatu zuten azaroaren 24an. Aimar Olaizola goizuetarrak eta Imazek 22-13 irabazi zieten Ezkurdia eta Zabalale-tari. Lehenbiziko partidari, bi beratar izan ziren aurrez aurre. Ander Errandonea eta Tolosak 22-19 irabazi zieten Re-



UTZITAKO ARGAZKIA

Eztegara pilotalekuan izan ziren dantzari, txistulari, pilotari eta epaileak, Bixente Fagoagarekin.

tegi Bi eta Iñigo Martinezi. Partida nagusia hasi aitzinetik, ohorezko aureskua dantzatu zuten Gure Txokoako dantzariak eta Eztegarako pilotalekuko obretan lanean aritu zirenen artean bizi den bakarrak, Bixente Fagoagak, bota zuten hasierako sakea erabakitzeke txapa.

HAINBAT KONTZERTU ETA EKITALDI EGITEN ARI DIRA

Abendu beroa Katakun

TTIPI-TTAPA

Kataku ostatuan antolatutako dituzten ekitaldiek segida izanen dute. **Abenduaren 16an**, larunbatean, 23:00etan Muskulo taldearen kontzertua izanen da. **Biharamunean**, Bertsolari Txapelketa Nagusiko saioa izanen da ikusgai 11:00etatik aitzinera. Egun osoko jarraipena pantaila erraldoian eta bazkaria (sagardotegiko menua, 25 eurotan).

Azkenik, **abenduaren 23an**, larunbatean, 14:00etan, Zotal Total besten musika jaialdia izanen da. Bertzeak bertze, 14:00etan bazkaria eta 18:00etan herriko musikariekin zuzeneko musika maratoia izanen dira.

SMAZIZOR

edariak

ESKAERA EGITEKO:
T.F. 948 631 557
T. 676 051 660
Helbidea: Ziobi, 3 ALKAIAGA
eposta: maziziorsenper@gmail.com

Zure neurrina prestatuko ditugu opariak!

ENPRESA ETA PARTIKULARRENTZAT
15 Etik gora
OPARI BAKOITZAK BERE KUTXA DAUKA

- Txakolina
- Sagardoa
- Ardoak
- Pattarrak
- Cavak
- Xanpaina
- Nafarroako kontserba ekologikoak

Oparitzeko ideiak!

T. denda 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6-BERA
jaurenabera@gmail.com

Jauzena

GIZARTEA → AZAROAREN 15EKO BATZARREAN EMAN ZION BEHIN-BEHINEKO ONESPENA

4.569.000 euroko aurrekontua onartu du Udalak aho batez

Mailegurik eskatu gabe berdintzea lortu du aurten ere

TTIPI-TTAPA

Azaroaren 15eko bilkuran aho batez onartu ditu Udalak 2018rako aurrekontuak. 4.569.000 eurokoa izanen da aurrekontu osoa, iazkoa baino milioi erdi guttiagokoa. Azken bi urteetan bezala, mailegurik eskatu gabe berdintzea lortu dutela azpimarratu dute.

Inbertsioen atalean, aurten Nafarroako Gobernuak 2017-2019 Azpiegitura Planean sartutakoak dira garrantzitsuenak: Usategietako depositoa egiteko proiektuak 360.000 euroko aurrekontua du. Eltzaurdia auzoko ur arazoak modalteza espero dute eta etorkizunean Ibarদিনera herritik ura eramateko tarteko biltegi gisa ere baliagarria izanen da. Larratxenbordako bidea moldatzeak 120.000 euroko aurrekontua du eta 2017rako emanak diren Gorostigain eta Zalaingo bideekin batera eskatua da. Etxebizitzetara doazen bideak moldatuko dira. Bidasoa-Agerran argiteria berritzeko 245.000 euroko aurrekontua dute. LED argiak jarri eta instalazio guztia berrituko da. Inbertsio honekin 6.000 euro aurreztuko dira. Lan horiek probestuz Bidasoa karrikako espaloia moldatuko da eta

fibra optikoa sartzeko hodia ere jarriko da, gero kablea pasatu ahal izateko, herria Nafarroako Gobernuaren fibra sarera lotuz.

Hiru lan horietarako 400.000 euroko diru-laguntza onartua du Gobernuak. Aldi berean, plan horren barrenean libre erabakitzeko atletik 115.000 euro jasoko ditu Udalak 2018an inbertsio horiek ordaintzeko.

Zahar Etxean eguzki plakak jarri eta portxea egiteko 100.000 euroko inbertsioa egingen du-

te. Azpiegitura Planetik kanpoko inbertsioa nagusia izanen da. Udalak landa garapen planera aurkeztuko du eta diru-laguntza lortuko balu, egingen luke. Ura berotzeko plakaekin urtean 7.000 euro aurrezteza espero dute gas kontsumoan.

Udalaren asmoa, poliki-poliki, kanpotik datozen energiak bertako energia berriztagarriekin ordezkatzeta da, ekonomikoki, eta zer erranik ez ekologikoki, hagitzez hobeak direlako.

Herriko azpiegiturak

mantendu eta moldatzeko Udalaren autonomia hobetu asmoz, langilerian eta makinerian inbertitzen ari da Udalak. Horretarako 2018ko aurrekontuan 30.000 euroko partida bat aurreikusitako mendiko bideak moldatu eta bertze herri lanetarako balioko duen makinaren bat erosteko. «Poliki-poliki, Berari dagozkion zerbitzu publikoak Udalak bere gain hartu behar harko lituzkeela uste dugu horretarako bai langilez bai makinariaz ere hornituz», aipatu du Jo-

DATUA

3

HIRURTEKO PLANEKOAK
Usategietako depositoa egin, Larratxenbordako bidea moldatu eta Bidasoa-Agerran argiteria berrituko dute.

su Irtatzeko alkateak.

Horiek dira aurtengo aurreikusitako inbertsio nagusiak. 2019 urterako berriz geldituko dira Azpiegitura Planeko gainerako obrak: Eztegara frontoiko 3. eta azken fasea, ostatua, komunak... egokitzea: 172.217 euro; Agerrako ur hornidura eta saneamendu sareak berritzea: 441.370 euro eta Musika Eskolan igogailua jartzea: 51.919 euro.

Hotel Churrut
HOTEL

2017ko Urte Zahar Gaueko Menua
Guijelo JD urdaiazpiko iberikoa kristal ogiarekin.
Etxeko mi-cuita sagar-konpotarekin.
Ganboiak plantxan.

Itsaskiz betetako legatza amerikar saltsarekin.

Idi-azpizuna, ahate-kurruskaria, lasto-patata habia eta foie-saltsarekin.

Etxeko kremazko tututxoak, txokolate bero eta praline-izozkiarekin.
Eguberrietako gozoak, mahatsak, kotiloi poltsa.

Pata Negra ardo ondua, Las Campanas ardo gorria, Las Campanas Chardonnay ardo zuria, Codorniu Brut cava, kafea eta likore kopa.

Prezioa: 75€ BEZ barne

Oporrengatik itxia:
Urtarrilaren 8tik otsailaren 7ra (biak barne)

Foruen plaza - BERA - T. 948 625 542 - T. 948 62 55 40
www.hotelchurrut.com

Garbi ogi & coffee
KAFETEGIA - OKINDEGIA

Eguberri eta Urteberri egunetan itxia

Iturlandeta, 6 • BERA • 948 625 673

arropa-denda | etxeko osagarriak | lentzeria

Arduro

Altzate, 30 31780 BERA T. 948 630 136

Itsasoa hurbilagot!

amalein
ARRAINDEGIA

948 630 981 • 620 828 757
Itzea, 6 • BERA • NAFARROA

Luahi AINHOA ESTETIKA

ileapaindegia • estetika zentroa • solarium

ACTYVA
VEGAN COSMETIC
100% natural
100% green

aurpegi eta gorputz tratamenduak
manikura eta pedikura esmaltatu permanentea
laser depilazioa • makilajea • belletetako permanentea

Eztegara kalea, 20. BERA
ILEAPAINDEGIA 948 625 742 • ESTETIKA 661 432 630

LESAKA

KULTURA → ABENDUAREN 30EAN HARRIONDOAN

Pepito Yanci gogoratuko du Musika Bandak

Bi saio eskainiko dituzte eta herriko musikariaren bizitzaren pasarte batzuk ere antzeztuko dituzte

Aitor AROTZENA

Azken urteetako ohi-turari eutsiz, urtea agurtzeko emanaldi berezia antolatu du Musika Bandak, Udalaren eta Martikoren laguntzarekin. Aurtengoan, *Pepito Yanci*, beti bizigoiburupean, herriko musikari handiari eginen diote omenaldia abenduaren 30ean, bere jaiotzaren mendeurrenean (1917-ko urtarrilaren 1ean jaio zen eta 1985eko abenduaren 26an hil zen). Bi saio eskainiko dituzte Harriondoa Kultur Etxean, 17:00etan eta 19:30-

ean. Hainbat musikari gonbidatu dituzte eta *sketch*-etan grabatutako Pepito Yanciren bizitzaren pasarte batzuk ere proiektatuko dituzte.

Emanaldiaren gidoia Andoni Egaña bertsolariak prestatu du eta musika konponketak Xabier Zabalak. Talde eta musikari gonbidatuen artean, Golden Apple Quartet (talde honek famatu zuen bere garaian Pepito Yancik Los Xey taldearekin abesten zuten *Buen menu* kantua), Iñaki Dieguez, Lesakako Soinulariak, dantzariak, Antxon Gisasola, Inma San Sebastian eta Dani Conde daude. Sarrerak 12 eurotan salgai daude Xagu, Legarra eta Telletxea dendetan eta internet bidez, www.kutxasarrerak.net webgunean.

Abenduaren 9tik 30ra, Pepito Yanciren inguruko erakusketa ere irekia dago komentuko elizan.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

175azienda feria egun jendetsuan

175azienda aurkeztu zituzten feria egunean parte hartzera. Horietatik 108zaltabereak ziren, 54 behi eta 13 ahari. Suitzako arrazako behietan lehen bi sariak Gillenbordako Francisco Javier Altzugararentzat izan ziren eta hirugarrena-Berako Begibeltzenekobordako Joxean Igoarentzat. Haragitako behietan, lehen eta hirugarren saria ere Igoak eskuratu zituen eta bigarren saria Maria Isabel Indarentzat izan zen. Zaldi aziendetan, lehen saria Evarista Telletxearentzat izan zen, bigarrena Arantzako Vicente Arozenarentzat eta hirugarrena Maria Jesus Maiarentzat. Aharrietan, lehen bi sariak Berako Migel Angel Etxegaraik eskuratu zituen eta hirugarrena Gillenbordara joan zen.

MAIRU ANTZERKI TAILERRAK ANTOLATUTA

Keinu-Leihoak Zikloko azken emanaldiak asteburuan

A. AROTZENA

Mairu Antzerki Tailerrak, Udalaren eta Arrano elkartearen laguntzaz, XIII. Keinu-Leihoak antzerki-jardunaldietarako egitarau zabala prestatu du. Abenduaren 8an, *Hozkailua* antzezlana eskaini zuen Huts Teatroak Harriondoa. Azken bi emanaldiak asteburu honetan izanen dira. Hilaren 15ean, ortziralean 22:00etan Arranon, *Morbus Operandi* antzezlana, Bibote Gorriak taldearen eskutik (sarrera doan) eta hilaren 16an, larunbatean, 20:00etan Harriondoa, *Besaulkiak*, Markina-Xemeingo Abarka Antzerki Taldearen lana izanen da ikusgai (sarrera bortz euro).

FLASH

Hor dun koxka taldearen kantua

Hor dun koxka herriko trikitilariak osatutako taldetxoak kanta bat sortu eta aurkeztu zuten Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak aurten antolatu duen I. make-ta lehiaketara. Hainbat kanta aurkeztu dira lehiaketara eta hamar onenekin *Haziak* CDa kaleratu dute orain. Bertan dago *Melodia zainetan* Hor dun koxkaren rantxera ere.

Eguberrietako kontzertua

Musika Eskolako ikasleek Eguberrietako kontzertua eskainiko dute abenduaren 20an, 18:00etan Harriondoa.

Baztan-Bidasoa liburua

Baztan-Bidasoa liburuaren aurkezpena eginen dute abenduaren 21ean, 19:00etan uda-etxe batzar aretoan.

TXIRULA
OPARI TXARTELA
zure esku

- Eguberrietako Pazko lore aukera ezberdinak
- Etxea apaintzeko gaiak
- Arropa eta osagarriak

ETORRI ETA IKUSI!!

Albistur 39 LESAKA · T. 948 627 542

Paisajismoa
Kimaketak
Mantentze-lanak
Lorategiak Discinatzea eta Sortzea
Ureztatze Sistema Automatikoak

"TELLETXEA"
Lorazaintza

Otxangoko Ind. 18 | LESAKA
T. 619 418 683 | johnllettxea@hotmail.com
www.telletxealorazaintza.com

KULTURA → ABENDUAREN 17AN

Sarrera guztiak salduta daude Carlos Nuñezen igandeko kontzerturako

Igande arratsaldeko 7:30ean hasiko da Andre Maria elizan

Irene ELIZAGOIEN

Azaroaren bukaeran hasia dute urte bukaerako bira Carlos Nuñez musikari ezagunak eta bere taldeak (tartean Itsaso Elizagoien herri-tarra) eta abenduaren 30era arte hainbat kontzertu eskainiko dituzte. Etxalarkoa berezia izanen da, hainbat gonbidatu izanen baitira. Carlosek beti garrantzia eman nahi izan die instrumentu tradizionalak jotzen dituzten talentudun artista gazteei. Horrela egin zuen orain dela bi urte Itsaso Eliza-

goienekin. Gaur egun berarekin dabil hainbat eszenatoki garrantzitsutan parte hartuz. Abenduaren 17an ere Etxalarrera gogo handiarekin etorriko da taldea, herriko hainbat musikari gazteei eszenatokia igotzeko gonbita eginez. Hala nola, trikitilari, dantzari eta berze hainbat musikari gonbidatu ere izanen dira ohol-tza gainean.

Txontxongilo emanaldia eta bingoa Herriko Ostatuan

Abenduaren 23an arratsaldez Gatz, titiritorto basatia taldeak txontxongilo emanaldia eskainiko du Herriko Ostatuan.

Bertzetik, lehengo ur-



Carlos Nuñez eta bere taldea, emanaldi batean.

teko arrakasta ikusita aurten ere bingoa egingen da Herriko Ostatuan urtarrilaren 1ean arratsaldeko 6etan. Hainbat sari bikain izanen dira jokoan eta herritar guztiak ekitaldira gonbidatuta daude.

Informazio gehiago egunak hurbildu ahala sare sozialen bidez edota kartelen bidez jakinaraziko da.

Eguberriak

Aurten ere eguberriak ospatzeko prestaketetan ari da herria.

Abenduaren 24ean arratsaldeko 5etan plazan elkartu eta txistulari eta trikitilarien laguntzaz herriari itzulua emanen zaio, Olentzeroekin gabon kantua kanta-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Mari Domingi eta Olentzero etorriko dira aurten ere.

tuz. 18:30ean meza izanen da eta ondotik frontoian txokolate beroa eta berendua eskainiko dira gerturatzen diren guzientzat, herriko musikarien emanaldiarekin girotuta.

Antolatzaileek Olen-tzeroak egitera anima-

tzen dituzte herritarrak. Ea aurten ere Olentzero bisita egitera etortzen den!

Eguberriak bukatzeko, aurten ere Larraburu elkar-teak txokolata eskainiko du urtarrilaren 6an, arratsaldeko 5etan.

Lentzeria
- Bainujantziak
- Mertzzeria
- Jantzi tipikoak
- Penen bilusak

Behoko plaza 10 31770 Lesaka
T. 948 627 514

IRU BIDE
Erretegia · Asador

Biurraña, 3 · Lesaka
Tel: 948 637 127

ZUBIONDO

Jatetxea sagardotegia

- Eguneko menua
- Asteburuetako menu berezia
- Karta aukera zabala
- Sagardotegi menua
- Haur parkea ttikientzat

Alasta Karrika BERA • T. 948 625 472
www.zubiondojatetxea.com

TXIMISTINDAR

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Andueza e Iriarte, SL

Zalain Industrialdea, 42B-4.pab
T. 948 631 452 | 639 608 034 | 639 125 046

tel. 948 631 519
www.xugabera.com
www.facebook.com/xugabera

ARANTZA

GIZARTEA → EGUBERRIAK

Prest dira Eguberrietako urteroko hitzorduak

Abenduaren
24an kalejira
eginen dute
arratsaldean

Nerea ALTZURI

Urte akabilako azken asteetan sartuak gauden honetan, Olentzero eta Mari Domingi ikusteko irrikitan daude, batez ere, etxeko tikiak.

Guraso Elkarteak antolatuta, guztia prest da abenduaren 24an egiten dieten harrerarako. 15:30ean Baskulan elkartzeko dira herritarrek, kalejirari hasiera emateko. Aterpe aldera joanen dira; ondotik Goienbururantz abiatuko dira eta handik, Txintxonbaitan barna, plazara ailegatuko dira. Horrela, ibilaldiari akabera emanen diote bildutakoek.

17:30 aldera ailegatuiko dira Olentzero eta

Mari Domingiri eta herritarrek harrera eginen diete. Eguberrietako kantak kantatu, biekin solastu, besarkada eta musuak eman, eta elkarrekin berenduko dute.

19:30ean Olentzero eta Mari Domingi heldu den urtera arte agurtuko dituzte.



ARGAZKIA: ENEKO SARRIAS

Oibarko abesbatzaren saioa

Oibarko Aritza abesbatzak emanaldi ederra eskaini zuen azaroaren 25ean eskolako gimnasioan. Euskaraz ez ezik, bertze hizkuntzetan ere kantatu zuten eta bildutakoak gustura gelditu ziren.

ELKARTASUN ZOZKETA

Abenduaren 31n, ilunabarrean, elkartasun kalejira eta zozketa eginen dituzte. Bi sari zozketatuko dituzte: alde

batetik, herriko produktuez osaturiko lote eder bat eta bertzetik, herriko bildots bat. Zozketako txartelak euro batean salgai daude.

ERREGE KABALGATA

Eguberrietako ospakizunak borobiltzeko, ilbeltzaren 5ean, hiru errege magoen kabalgata eginen da ilunabarrean.



ARGAZKIA: ARANTZAKO HERRI ESKOLA

Genero indarkeriarik ez!

Emakumeenganako indarkeriaren kontrako aldarria karrikara atera zuten herritarrek azaroaren 24an. Eguerdian, elkarretaratzea egin zuten eskolako lagunek eta hainbat herritarrek plazan eta arratsaldean, *Kabi biluziak* filma ikusteko aukera izandu zen eskolan.

aterpe
albergea jatetxea ostatua

T. 948 634 179
ARANTZA
www.arantza.net
en: pasa jauterjari

EDARI AK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.com

PABLOENEA
Urte berri on!

KARTA | MENUA |
URTEZAHAR-GAUEAN ERE OHIKO ZERBITZUA,
ETXKO GIRO GOXOAN!

www.pabloenea.com
Goiko kalea, 5 • ARANTZA • 948 634 077



Toki Ona

Bigarren Hezkuntzako Institutua

Eztegara Pasealekua, 34
31780 **BERA**
Tel.: **948 625.000**
Faxa: 948 625.032
iesbera@educacion.navarra.es
<http://iestokiona.educacion.navarra.es>



Alhondiga



Toki Ona BHI gaur egun

OFIZIALIA ESKOLATIK > BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTURA

Toki Ona Institutuak 50. urteurrena ospatuko du

Bortzirietan, industrializazioa zabaltzen hasi zenean, langile kualifikatuen beharra ikusi zen eta horren ondorioz, zentro egoki bat sortzeko gestioak hasi ziren. Gaur eza-gutzen dugun **TOKI ONA Institutua 1967. urtean sortu** zen Ofizialiako Eskola bezala, mekanikan espezializatua.

Berako Udalak gaur egun Kultur Etxea den eraikina eskaini zion Nafarroako Gobernari, gelak eta tailerrak bertan egokitzeko eta Eztegarako frontoia patio moduan erabiltzeko. Lehenbiziko ikasturte hartan, lau irakasle (**Jose M^a Irazoki, Luis Aizpuru, Jose Antonio Irazoki eta M^a Jesús Astondoa**), bi langile eta 36 ikasle aritu ziren.



Nafarroako Matematika olimpiada Toki Onan



Administratiboko ikasleak klasean

Ondotik, espezialitate gehiago eskaini izan dira: elektrizitatea, administratiboko (**1972-73 ikasturtean**) eta sanitarioa zabaldu zen.

1970. urtean Hezkuntza Planak aldatu ziren eta Ofizialiako Eskola izatetik, lehen graduako Lanbide Eskola izatera pasa zen. Instalazioak ere handitu zituen 'Gure Toki Ona' eremua erositik.

1988. urtean HKM Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren deialdi baten bidez, kiroldegia egin zuen Udalak, ikastetxe publikoetako kirol instalazioak eraikitzeko.

1989. urtean IEE Irakaskuntza Ertainen Erreforma delakoa ezarri zen. Aitzinetik zegoen Lanbide Heziketa desagertu eta IEE ezarri zen A, B eta D ereduetan.

1994-95 ikasturtean DBHko lehen zikloa ezarri zen, ondorengo urteetan eskaintza osoa egin arte, Batxilergoa barne.

2000. urtetik honat
gure erronkak **kalitatea**
eta **berrikuntza** dira

Egindako lanaren errekonozimendu modura, hainbat agiri lortu ditugu:

- **2000n**, Bai Euskarari, zerbitzuak euskaraz, DBH eta Batxilergoan.
- **2002an**, EFQM Brontzezko zigilua.
- **2004an**, ISO 9001.
- **2006an**, EFQM Zilarrezko zigilua.
- **2008an**, ISO 9001.
- **2008an eta 2015ean** Ikastetxe Birkaina aitortpena.

Berrogeita hamar urte hauetan, 3.628 ikasle eta 603 langile pasa dira institututik.

Gaur egun, 512 ikasle daude matrikulaturik eta horietatik 491 dira Euskaraz ari direnak.

GAUR EGUN ESKAITZA ZABALA DA:

- **DBH** (A, B eta D ereduak).
- **BATXILERGOA**, euskaraz
 - Osasun Zientziak.
 - Teknologia.
 - Zientziak eta ingeniari-tza.
 - Giza eta Gizarte Zientziak.
- **Erdi Mailako Zikloa**
 - Mantentze-elektromekanikoa
- **Goi Mailako Zikloa**
 - Mekatronika.

Gure ikasle ohiak, egun, medikuak, mekanikoak, enpresetan karguak dituzten langileak, irakasleak (fisika, kimika, matematika,...), kazetariak, ingeniariak, eta abar luzea dira.

Ikasleek lortutako sariak ere aunitz izan dira Nafarroan, Espania mailan eta Nazioartean (promozio bat Estrasburgoko parlamentuan egon zen lortutako sariarekin).

ESKERRIK ASKO GUZTIEI DENON ARTEAN POSIBLE EGIN DUGULAKO.

Ikasturtean zehar ekingiza aunitz garatuko ditugu eta parte hartzera animatu nahi zaituztegu!

IGANTZI

KULTURA → ABENDUAREN 16AN (20:30)

Eguberrietako kontzertua azkena izanen da Abesbatzarentzat

Denborak erranen du erabakia behin-behinekoa edo behin-betikoa den

TTIPI-TTAPA

Aurtengo Eguberrietako kontzertua azkenekoa izanen da Igan-

tziko Abesbatzarentzat. Behin-behinekoa da erabakia edo behin-betikoa? Denborak erranen du.

1989ko irailean hartu zuen Isabel Lacarrek abesbatzaren lekukoa, Juan Bautista Irazoki erretorea Leitzara joan zenean. 28 urte joan dira, beraz, Igantzin lanean hasi zenetik. Orain, alde batera eta bertze-



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA


Urteak daramazki abesbatzak Eguberrietako kontzertua eskaintzen. Argazkia 2010ekoa da.

ra ezin ailegatuz, bertako abesbatzarekin daukan harremana gelditzea erabaki du. Udaberriaren emana zion abesbatzako partaideei bere asmoaren berri eta momentua ailegatu da. Hortaz, abenduaren 16ko emanaldia bere-

zia izanen da, dudarik gabe. Egun horretarako noizbait abesbatzan kantatzen aritu diren lagun guztiak gonbidatuak ditu abesbatzak, kontzertu hondarrean denak elkarrekin kanta bat jendeari eskaintzeko asmoarekin. Aitzinetik,

meza kantatuko du Abesbatzak eta dozena bat kanta kontzertuan.

Erran bezala, abenduaren 16an, ilunabarreko 8:30ean izanen da ekitaldia eta herri guztiak gonbidatua dago abesbatzaren azken emanaldi honetara.



22 URTEZ BEHEITI TRINKETEAN

Oian Canabalek brontzea lortu du Munduko txapelketan

TTIPI-TTAPA

Oberena taldean ari den Oian Canabal herri-tarrak brontzezko domina lortu du azaroaren 20tik 25era Buenos Airesen (Argentina) jokatu duten Munduko 22 urtez beheitiko trinkete txapelketan. Canabal eskuz binaka aritu da, Esteribarko Luis Sanchezekin bikote eginez. Lehen fasean Mexikoko Abimael eta Gonzalezen kontra galdu zuten eta brontzerako lehian Kubako Barcelán eta Linares-i irabazi zieten (15-9 eta 15-3).

Luahi AINHOA ESTETIKA

ileapaindegia • estetika zentroa • solarium





aurpegi eta gorputz tratamenduak
manikura eta pedikura esmaltatu permanentea
laser depilazioa • makilajea • belletako permanentea

[f](#) LUAHILEAPAINDEGIA

Eztegara kalea, 20. BERA
ILEAPAINDEGIA 948 625 742 ESTETIKA 661 432 630

Gabonetako
deskontu bereziak
-20%
eguzki betaurreko guztietan
abenduaren 11tik urtarrilaren 5era

Ostargi optika



Bea Artola Ferran Optiko-optometrística kol.zk: 9812
Bidasoa 8 BERA Tfno: 948 630 753

GIZARTEA → ABENDUAREN 18AN

Irungo Ficoba bisitatuko dute eskolako ikasle eta irakasleek

Hilaren 22ko jaialdian Iñaki Zubeldia ipuin kontalaria izanen da



ARTXIBOKO ARGAZKIA
Iñaki Zubeldia ipuin kontalaria.

Maidar PETRIRENA

Herriko eskolako ikasle eta irakasleek beraien 1. hiru hilabete dagoen artean egiten dute abenduaren 18an Irungo Ficoba bisitatu eta gozatu. Ondoren, abenduaren 22ko Egu-berrietako jaialdian Iñaki Zubeldia ipuin kontalaria izanen dute. Segidan, herrian bueltaxka emanen dute, hiru-lau lekutan Gabon kantak kantatuz.

Akitzeko, guztiak elkarrekin gosari goxo batez gozatzeko aukera izanen dute. Ondotik, urtarrilaren 8ra bitarte oporralditxo ederra izanen dute.

Olentzero

Abenduaren 24an Olentzerori ongi etorria egiten diete urtero bezala bi aldeetan banatuz: arratsaldeko 4etan izanen da hitzordua:

- Ttikienak labaderoan elkartuko dira eta Olentzerori ongi etorria egitera joanen dira.

- Kozkorak berriz eliz atarian geratuko dira eta errepideko auzoa egiten dute.

Ondoren guztiok frontoian elkartuko dira txokolata, muxuak, eskutitzak... hartzeko eta emateko.



ARGAZKIA: ESKOLAK UTZIA

Emakumeenganako indarkeria salatuz elkarretaratzea eskolan

Eskolako ikasle eta irakasleek emakumeenganako indarkeriaren aurkako elkarretaratzea egin zuten azaroaren 24an goiko eskolako patioan.



ARGAZKIA: LOREA BABAZE

Kenpo-Kaiko ikasleek azterketa egiten dute Oartzunen

Haur kuadrilla batek kenpo-kai ikasten du herrian bertan eta urtero teknifikazio ikastaroak eta azterketak egitea suertatzen zaie. Abenduaren 16 eta 17an Oartzungo Elorsoro kiroldegian izanen dituzte. Zorte on kuadrilla!

MARITX
• Ingeniaritza elektrikoa • Boletín industria
• Proiektu elektrikoak • Instalazio elektrikoak
Legia, 23 - BERA | T. (0034) 636 617 450

Bidasoa
GASOLINDEGIA
A, B eta C motako GASOLIOA ETXERA
24 ORDUZ
Alkaiaga Industrialdea, 4. LESAKA · T. 609 446 693

BORDALARRIA
Gure Haragia
Nuestra Carne
Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27
MAFRIDO ERAIKINA · DONOSTIA
Tel. 943 467 244 943 467 444
Fax. 943 473 726
carnessein@bordako.com

BAR Botxo OSTATUA
Zalain · BERA · 948 630 052

ANTZUZELAI S.L.
ZINTARRIAK · ADOKINAK · ZOLAK
Tel. 948 631 317 · Faxe. 948 631 587
Irungo errep. BERA
www.antzuzelai.com
info@antzuzelai.com
Aintzinaldeak, angeluak, oma antzinakoak, leihoak, atek, arkuak, pilareak, tximiniak, erlaizak, moldurak, zokaloak, hilarriak, marrazkiak

DONEZTEBE

KULTURA → MENDI TTIKI ABESBATZA SORTU BERRIAREN AURKEPENA EGINEN DUTE ELIZAN ORTZIRALEAN

Urte akabaila mugitua du aurten ere Mendi Abesbatzak

Nafarroako Eguneakoaren ondotik, Eguberrietako kontzertua eskainiko du ortziralean eta urteko azkena hilaren 27an, Iruñean

Marga ERDOZAIN

Nafarroako eta Euskararen Egunearen harira, emanaldi bikaina eskaini zuen Mendi Abesbatzak elizan abenduaren 3an.

Urtero bezala, abendu mugitua izanen du Mendi Abesbatzak. Hurrengo emanaldia abenduaren 15ean izanen da, ortzirale arratseko 8etan, elizan. Egube-



ARGAZKIA: UTZITAKO ARGAZKIA

Mendi Abesbatza Bertizko Natur Parkean ateratako argazkian.

rrietako Kontzertu Berezia izanen da, eta berzte behin Donostiako Udalaren Txistulari Taldearen laguntza itzela izanen dute emanaldian. Gabonen inguruko doinuak izanen dira gehien entzun diren kantak, baina bertzelakoak

ere izanen dira. Berrikuntza gisa, aurtengo kontzertuan Mendi Ttiki abesbatza sortu berriaren aurkezpeneko emanalditxo ere izanen da, Agorreta Musika Eskolako ikasleen koroarekin elkarlanean. Eta hilabetea akitze-

ko Mendi Abesbatzako lagunak Iruñera joanen dira, hiriburuko Udalak antolatutako Gabon Kontzertuen zikloan parte hartzera. Eguna abenduaren 27an izanen da, arratseko 8etan, Carmelitas Descalzas elizan.

Eguberrietan erosi Mari Cruz-en eta jaso zure oparia:

EL BAÛL DE
Mari Cruz

11 ETA 16 URTE ARTEKO GAZTEAK EGONEN DIRA

Bertsozale Elkartek bertso negulekua prestatu du Legasan

TTIPI-TTAPA

Bortzgarren urtez, bertso negulekuak antolatu ditu Nafarroako Bertsozale Elkartek, herrialdeko bertso eskoletako gazteei zuzenduta. Aldi honetan, Legasan egin dute hitzordua, abenduaren 27tik 29ra, bi txandatan banatuta. 11 eta 16 urteko gazteak egonen dira, Nafarroako gazteen bertso eskoletan ibiltzen direnak. Aipatzekoa da, Zugarramurdi egin zituztela lehenbiziko aldiz bertso udalekuak, 2013an. Eta geroztik, Ituren eta Zubietan, Astizen eta Beintza-Labaienen antolatu dituzte. Bertso eskoletan dabiltzan gazteek elkar ezagutu eta sarea indartzea da bertso negulekuen helburua. Horretarako, saio bereziak, formakuntza saioak eta bertso jolasak eginen dituzte parte-hartzaileek.

Gaur egun, gaztetxoek 30 bertso eskola daukete Nafarroako hainbat eskualdetan, eta 197 gazte ari dira horietan ikasten, eskola ordutik kanpo.

FLASH

Olentzero eta Mari Domingi

Abenduaren 22an (ortzirale) Olentzero eta Mari Domingi Askin haur eskolara eta San Migel ikastetxera etorriko dira. Arratsaldean, zineman, Firin Farandula bertako antzerki taldearen emanaldia izanen da.

Olatz Zugasti

Abenduaren 23an (larunbata), 19:00etan Olatz Zugasti eta bere taldearen emanaldia zineman izanen da. Saierak salgai daude: Mikelostatuan, Kimetz belardendian eta Pepa's kafetegian (18 eurotan). Udalak ekimen hori diruz lagundu du.

Saioara irteera

Abenduaren 24an, Errekak antolatutako Saioa mendi-irteera izanen da. Arratsaldean, Olentzero eta Mari Domingiren etorrera ospatuko da, txistulari, dantzari baita herriarren laguntza ere.

Errege Kabalgata

Abenduaren 30ean (larunbata) Doneztebeko Errege Kabalgataren historia laburtzen duen dokumentala pantailaratuko dute (bitxikeriak, parte-hartzaileak...). Aurten ere mimo prestatzen ari dira.

Zakur kakak

10 edukiontzi paratu ditu herri osoan Udalak zakurren gorotzaren arazoari irtenbidea emateko. Dagokion erabilera ematea eskatu du. Intzakardi parkean zakurrak ibiltzea debekatu dago. 2018an Udalak gune berezi bat atondu nahi du jabeak animaliak bertara eramateko.

KIROLA → ABENDUAREN 16AN ETA 17AN

Mendiaren Eguna bi egunetara hedatu du aurten Errekak

Larunbateko Victor Volodin errusiarraren eta igandeko Alex Txikonen emanaldietarako sarrerak salgai daude

Marga ERDOZAIN

Aurten berrikuntza nagusi batekin heldu da Doneztebeko Errekaren Mendiaren Eguna. Izan ere, bi jardunaldi izanen ditu abenduaren 16an eta 17an, bi mendizale handiren proiektioekin: Victor Volodin errusiarrarena eta gurean aspaldiko ezaguna den Alex Txikon bizkaitarra.

Abenduaren 16an,

larunbatean, Victor Volodin mendizale errusiarraren da gure artean eta *El Leopardo de las nieves* proiektioa eskainiko du. 19:00etan izanen da hitzordua Leku Eder Zineman.

Abenduaren 17an, aldiz, aski ezaguna dugun Alex Txikonen txanda izanen da. Izugarriko arrakasta izaten ari den *Everest, un reto sobrehumano* proiektioa emanen du, 18:00etatik aintzinerara Leku Eder Zineman. Emanaldi honen aitzinetik, igande goizeko 7:30ean mendi irteera abiatuko da autobus geltokitik. 12:30ean poteoa izanen dute eta 14:00etan bazkaria. Titi punta daiteke abenduaren 13a bitarte.



Bi proiektioetarako sarrerak Doneztebeko Titi Ostatuan, Berako Errekalden eta Elizondoko Intzan daude salgai, 5 eurotan. Sarrerak bi jardunaldietara sartzeko eskubidea ematen du.

Areto-futbol txapelketa

Doneztebe Futbol Taldeak Eguberrietako VII. Areto futbol txapelketa antolatu du abenduaren 22tik 31ra. Sariari dagokienez, talde irabazleak trofeoa eta 300 euro eskuratuko ditu; bigarrenak txuleta eta ardoa; eta hirugarrenak urdaiazpikoa.

Bakarkako sariak ere izanen dira golegile nagusiarentzat eta jokari onenentzat.



ARGAZKIA: UTZITAKO ARGAZKIA

Alex Txikon eta Victor Volodin mendizaleek beraien esperientziak biltzen dituzten dokumentalak aurkeztuko dituzte. Saioara eta Mendaurrera mendi irteerak eta San Silbestre lasterketa ere prestatzen ari da Erreka urte bukaerari begira.

Enkarguak hartzen dira

K. Nagusia 2 · DONEZTEBE
T. 948 450 589

Bar Amertia
Ostatua

ZERRIKUME ERREA
ENKARGUZ

eguberri on!

Bertan jateko
Entsalada eta ogiarekin
75€
Eramateko
65€

T. 948 450 028
Doneztebe

ETXEKO ESPEZIALITATEA

Parrokia 17 | DONEZTEBE
Tel-Faxa: 948 450 289
costiz@telefonica.net

CASA OSTIZ

ZAPATA-DENDA
LIBURU-DENDA
PAPERTEGIA

ZURE BETIKO DENDA ORAIN ON-LINE ERE:
www.libriercasaoostiz.com

616 513 497

Pittti
ESKABAZIOAK

ESKABAZIO eta
GARRAIO LANAK

TIF 948 451 389
Ezpelura, 1 · DONEZTEBE
pitttieskabazioak@hotmail.com

ITUREN

ELGORRIAGA

OSPAKIZUNAK → ABENDUAREN 22AN

Eguberrietako besta ospatuko dute Pulunpa eskolan

Ikasleek prestatutako kanta eta dantzak eskainiko dituzte eta boletoen zozketa egingen dute gero

Arkaitz MINDEGIA

Abenduaren 22an eskolako irakasle eta ikasleek Eguberrietako besta antolatuko dute goiz-goizetik. Ikasleak, bakoitza bere gelakideekin, kanta eta dantzak prestatzen ari dira eta egun horretan familia eta lagunei erakutsiko diete eskolako garbaran. Behin ikasleen ekitaldiak akituta, boletoen zozketa egingen dute eta oporrak ongi hartzeko gosaria izanen da Guraso Elkarteak eta bertze aita eta amek eramandako jakiekin.

BOLETOAK

Azken urteetan bezala,



ARGAZKIA: PULUNPA ESKOLA UTZIA

Genero indarkeriaren kontrako mezua

Azaroaren 25ean, Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna zela eta, Pulunpa eskolako ikasleek eskulanak egin zituzten indarkeria salatzeke. Plazako paretan itsatsi zituzten.

Guraso Elkarteak Eguberrietarako hainbat ekitaldi prestatu ditu. Urtean zehar egiten diren ekitaldien gastuak estaltzeko, boletoa eta egutegiak salgai jarri dituzte eta aurten berrikuntza bezala, kamisetak ere bai. Egutegiak

Iturengo Tresanean, Aurtizko Abarun aterpetxean, Elgorriagako Ostatuan eta Guraso Elkarteak edonori eskatuta lor daitezke.

Mus txapelketa

Asteburu honetan, abenduak 15, 21:30ean

mus txapelketa egingen dute Tresanean. Hiru sari banatuko dituzte parte-hartzaileen artean: lehenbiziko saria txuleta eta botila bat ardo, bigarrena gazta bat eta hirugarrena botila bat ardo. Antolatzaileek animatzeko deia luzatu dute.

OSPAKIZUNAK

Eguberrietako bestetan murgiltzeko prest

Mattin LARRALDE

Urtero bezala, Olentzero menditik etorriko da Elgorriagara. Kantak dioen bezala, ikazkile begigorria gure ingurura etortzen da opariak eta ilusioa banatzera eta jendea menditik noiz agertuko esperoan egoten da, berekin abesteko eta solasteko.

Urte berrian, arratsaldean, *Urte berri berri* abestuz etxez etxe goxokiak eta urtatxak bilduz ibiliko dira haurrak. Egun horietan, gurasoek antolatutako bazkari bat eta zenbait ekintza (ipuin-kontalaria, txangoak, txokolatada...) ere izanen dira. Horrez gain, talo jatea ere izan zuten, hotzari kontra egiteko.

Urte berri on eta egun zoriontsuak pasa eta segi hain pozik pasatzen gainerako egun guztiak ere, edozein egun polita izan baitaiteke, norberak nahi izanez gero.

Clinica Dental

IRURITA RUBIO

ORTODONTZIA ETA INPLANTOLOGIA

Rx. Panoramikoa • Periodontzia • Odontopediatria
Kirurgia • Endodontzia • Protesiak • Hortz-zuritzea
PADI (Haurren hortzak zaintzeko programa)

DONEZTEBE

Rosa Seminario, 19
948 450 267

EGUBERRI ON!

LEITZA

Manuel Lasarte, 7
948 610 713



DONEZTEBE

Hasi dira **MALERREKA PROMOZIOAK** promotorak egindako etxebizitzak eraikitzen.

Dagoeneko 2. faseko etxebizitzak salgai
ZURE BEHARREN ARABERA, 2 eta 3 logelako etxebizitzak.

**Zuk erran
eta guk egin!**

58 m²koak:

sukaldea/egongela,
2 logela, 2 komun.

**74 m² eta 90m²
ingurukoak:**

3 logela, egongela,
sukaldea eta 2 komun.

135.000 €tik goiti



**Ez galdu
aukera!**



- ✓ 2017ko abenduaren 31 baino lehen erositakoek Nafarroako Gobernuaren **diru-laguntza** jasoko dute (**%15-18 artean**)
- ✓ Zure beharren **araberako finantziazioa**, Rural Kutxaren babes eta abalarekin
- ✓ **B ziurtagiria**, isolamendu berriak, sistema aerotermikodun berogailua (kontsumo baxua)
- ✓ **Material nobleetan** eraikia
- ✓ **Barne materialak aukeran**: egurra, azulejoak...
- ✓ Sukaldea eta lokala gurekin erosiz gero, **%11 aurreztuko** duzu



Informa zaituz

EZKAIN ERAIKUNTZAK
Inzakardi kalea z/g | **DONEZTEBE**

629 951 170



LOKALAK ere baditugu,
txoko, garaje edo
lokal komertzialak
egiteko

ZUBIETA

GIZARTEA → ABENDUAREN 15EAN BILERA INFORMATIBOA (19:00)

Plazari idorra emateko asmotan dabil Udala

Memoria baloratiboa eskatu dio udal arkitektoari

Fermin ETXEKOLONEA

Plazari idorra emateko memoria baloratiboa eskatu dio Udalak Patxi Chocarro udal arkitektoari. Herrian idorrik ez dagoela ikusirik, urrian egindako osoko bilkuran akordioa hartu zuten herriko ordezkariak.

Heldu den abendua-
ren 15erako, arratsal-

deko 19:00etan udalak bilera informatiborako deia egingen du herriko estalpean. Bertan Udalak eta Chocarrok berak memoria aurkeztuko dute.

Miguel Mindegiari liburua eta omenaldia

Joseba Urretabizkaia argazkilaritza tolosarrak hasitako aizkolarien trilogiari amaiera eman beharra dio, eta horretarako bere azken lanaren aurkezpena egingen du. Aurreko bietan be-

zala, lanaren ardatza aizkolari bat izanen da. Oraingoan Miel Mindegi aizkolaria. Aurkezpena eta omenaldia Migel Mindegiaren bi herri kuttunetan egingen da, Zubietan eta Ezkurran.

Abenduaren 22an, arratsaldeko 7etan Joseba Urretabizkaia liburua aurkezpena egingen du Zubietako estalpean.

Abenduaren 23an, berriz, Nafarroako Herri Kirol Federazioak Migel Mindegiari omenaldia eskainiko dio Ezkurran.



UTZITAKO ARGAZKIA

Hondakinen egutegiarekin saritua

Baztango Udalak eta Bortzirak eta Malerrekako Mankomunitateek banatutako Hondakinen egutegiak daraman zenbakiarekin, hiruhilabetero zonaldeko dendetan gastatzeko 300 euroko erosketa txartela zozketatu dute. Aurtengo laugarren eta hondarreko saria Zubietako Miren Edurne Arbelaitz Hernandorenak irabazi du. Argazkian, sariduna ageri da, Malerrekako Mankomunitateko presidentea den Amets Inda Sunbillako alkatearekin.



BEROPEL
egurrezko pelletak

ECHEVESTE HNOS. SL



ES 025

T. +34 948 637 232 • +34 618 264 654

31770 LESAKA (Nafarroa) • Fax + 34 948 637 250

info@echevestehermanos.com

www.echevestehermanos.com



BEINTZA-LABAIEN

GIZARTEA → EMAKUMEAK GOGOZ

Berriz ere bestetan dantzatzeko prestatzen hasiak dira

Ostiralero entseatzeko hasiak dira eta afari batean ere bildu dira

Arantxa ITURRALDE

Beintza-Labaiengo bestetan eskaini zuten dantza saioak izan zuen arrakasta ikusita, hasiak dira dagoeneko herriko emakumeak dantza saio berriak prestatzen. Ilusioz eta gozoz aritzen dira dira

ostiralero egin ohi dituzten entseuetan, eta heldu den abuzturako berriro emanaldi polit bat emateko asmotan dabilta, igantziarra den Olaia irakaslearen eskutik.

Emakumeen dantza taldeak, beraien jardunaldiei elkarrekin egindako afari batekin eman dio hasiera azaroan.

Abendu hasiera mugitua

Abenduko lehen larunbatean bi ekitaldi an-



ARGAZKIAK: ARANTXA ITURRALDE

Goian, emakumeak azaroko afarian eta behean, herriko bestetan dantzatu zuten.

tolatu zituzten Malerreka Mankomunitateak eta Beintza-Labaiengo Udalak. Batetik Malerreka kantuz eki-

men egin zen, eguerdian Beintzako plazatik abiatuta. Bestetik, arratsalde haurrendako ikuskizuna izan zen,

Beintzako frontoian. Niala magoak bere emanaldia eskaini eta gero txokolatada izan zen neska-mutikoentzat.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

**Opari praktikoak!
Zorionak!**

Funda nordiko eta edredoietan espezialistak

edredoi fundak · albornoak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

BAZTAN-BIDASOA

EUSKARA → ABENDUAREN 28AN ETA 29AN DONEZTEBEKO HERRIGUNEAN (SANTA LUZIA PLAZA)

Begiraleendako hizkuntza prestakuntza saioa eskainiko dute

Baztan, Malerreka eta Bortzirietako hezitzaile, begirale eta entrenatzaileei zuzendua, Dindaia Fundazioaren eskutik

TTIPI-TTAPA

Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuak begiraleendako hizkuntza prestakuntza ikastaroak antolatu ditu. Horietako bat Donezteben izanen da, Baztan, Malerreka eta Bortzirietako hezitzaile, begirale eta entrenatzaileendako, abenduaren 28an eta 29an. Ikastaroa Dindaia Fundazioak emanen du *Begiraleak eragile: Euskarazko sozializazioa sustatzeko*



ARGAZKIA: A. AROTZENA

150 lagun bildu zituen Mintzodromoak Lesakan

Sareuskak laugarren aldiz antolatutako Mintzodromoa abenduaren 1ean egin zen Lesakako Harriondoa Kultur Etxean. Bidasoaz bi aldetako 150 bat lagun bildu ziren (tartean Bera, Etxalar, Arantza eta Hondarribiako alkateak, musikariak, bertsolariak...), proposatutako gaien inguruan (euskalkia eta euskara batua, turismoa, etorkinak...) lauko taldetan solastera.

Ikastaroa. Baztango Udalaren, Malerrekako Mankomunitatearen eta Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen laguntza izanen du 9 orduko ikastaroak.

Interesa dutenek

Baztan (948 580006/euskara@baztan.eus), Malerreka (948 451746/euskarazerbitzua@malerreka.infolocal.org) edo Bortzirietako (948 634125/euskara@bortziririak.eus) euskara zer-

bitzuetan eman behar dute izena. Epea abenduaren 21ean bukatuko da eta plazak izena emateko hurrenkeran beteko dira. Guttienez 10-12 lagunek eman behar dute izena ikasta-

roa egin dadin eta gehenez 25 onartuko dira. Parte-hartzaileei Nafarroako Gobernuak argitaratu duen gida batnako zaie eta ikastaroa egiten duten guztiak agiria jasoko dute.

Abenduaren 28an, ortzegunean, 11:00etatik 14:00etara eta abenduaren 29an, ortziralean, 11:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 18:30era eskainiko dute ikastaroa Doneztebeko Herrigunean (Santa Luzia plaza).

Nafarroako Gobernuak hezitzaileendako argitaratutako *Gidaren aurkezpena* egingen dute. Nafarroako euskararen egoera eta oinarri soziolinguistikoak ageri dira bertan. Aisialdiko jardueretan euskara sustatzeko estrategiak eta teknikak landuko dituzte eta euskara sustatzeko baliabideak eta ondorioak aztertuko dituzte.

EZKURRA

GIZARTEA → UZTA ONA

Negurako prest

Testua-Argazkia: Jaione ZABALO

Kasteneko udazkeneko uzta ageri da argazkietan. Mieltxok arto, kalabaza, banabarra eta laranja ugari ditu, baina berea bezala, herriko eta inguruetako ganbara eta sotoak ere negurako prest daude.



GIZARTEA → NAFARROAKO 25 EKOIZLEREN PRODUKTUEKIN OSATUAK

Errigoraren 540 saski banatu dituzte eskualdean



TTIPI-TTAPA

Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka lelopean, aurtan ere Nafarroa hegoaldeko euskalgintzari laguntzeko Errigora kanpaina egin dute. Nafarroako 25 ekoizleren produktuekin osatutako kutxak eskaini dituzte eta antolatzaileek jakinarazi dutenez, TTIPI-TTAPAK hartzen duen eskualdean, 540 saski banatuko dira: 83 Baztanen, 166 Bortzirietan, 233 Leitza, Areso, Arano eta Goizuetan, eta 58 Malerrekan. Bi kutxa izan dira aukeran, zuria eta beltza, biak ere 50 eurotan, eta 540 horietatik 210 zuriak eta 330 beltzak izan dira. Azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitarte banatu dituzte kutxak eta abenduaren 4tik 14rako tartean ordainketak egin beharko dira.

HERRIZ HERRI DATUAK

Baztanen: Elizondon 31 kutxa zuri eta 52 beltz eskatu dituzte.

Bortzirietan: Beran, 21 kutxa zuri eta 46 beltz eskatu dituzte; Lesakan 14 zuri eta 40 beltz, Arantzan 7 zuri eta 6 beltz, Igantzin 8 zuri eta 38 beltz, eta Etxalarren 6 beltz.

Leitzaldean-Urumealdean: Areson 6 kutxa zuri eta 8 beltz, Leitza 65 zuri eta 96 beltz eta Goizuetan 29 zuri eta berte horrenbertze beltz.

Malerrekan: 29 kutxa zuri eta berte horrenbertze beltz eskatu dituzte.

Aurreikuspen eta Pentsio Planak



Likidezia alertak:

- Prestazio kobratzeko edo emesate eskubidea gauzatzeko aukera bakarik izango da, baldin eta likidezian salbuzpeneko gertakizunen edo kasuen bat gertatzen bada, planen eta pentsio funtzen araudian araututakoarekin bat.
- Prestazioen eta likidezian inguruko salbuzpeneko kasuen mugikortasun eskubideen balioa pentsio funtseko aktiboen merkatu-baloaren merpean dago, eta galera garrantzitsuk eragin ditzake.

Gure Pentsio Planen arriksu maila 2 eta 6 artekoa da. Aderazte horrek Pentsio Planen arriksu maila neurtzen du eta datu historikoen oinarritutako kalkuluetan da, hala ere, litekeena da datu horiek ez izatea Planaren etorkizuneko arriksu profilaren adierazle fidagarri bat. Gainera, ez dago bermerik adierazitako kategoriak aldatu gabe iraungo ote duen, eta denboran zehar aldatu egin ditzake. Gure Pentsio Planen arriksu mailari dagokion informazioa eskuratu nahi baduzu, begiratu hemen: www.ruralvia.com

ZURE ETORKIZUNA ORAIN PASATZEN ARI DA



SARTU

ETA PLANETAN DITUGUN ADITUEK ZURE ERRETIRORIK ONENA PRESTATZEN LAGUNDUKO DIZUTE



> **Zure etorkizuna** gure Planetan dago

11/17 Pentsio Planen Entitate Kudeatzailea: RGA Rural Pensiones I.F.K. A 78963675 – Entitate Gordaluzaina: Banco Cooperativo español I.F.K. A 79490655. Aurreikuspen Plan Aseguratua, Aseguruen eta Berraseguruen RGA Rural Vida S.A.rekin kontratatua, Helbidea C/ Basauri, 14, 28023 Madrid, I.F.K.: A-78229663. Merk. Erreg. Madrid, Liburuakia 6.243 Atala 8, Liburuakia 0, Folia 215, Orria M – 101812, RGA Mediación Operador de Banca-Seguros Vinculado ebearren bidez, Aseguruen Zuzendaritza Orokorren erregistroan OV-0006rekin inskribatua. Merk. Erreg. Madrid, Liburuakia: 8.205, Folia: 89, Atala: 8, Orria: M-10.188, I.F.K.: A-79490264. Rural Kutxa Operadorearen banaketa sare gisa dardaru. Kontsultatu zer aseguru entitateekin daukan RGA Mediación-ek aseguru agentziako kontratu bat: www.segurosrga.es/Entidades_contrac_RGA_Mediacion.pdf

ARKUPEAK

GIZARTEA → ADINEKOEN KONTSEILUAREN BILERAN

Heldu den urtean jasoko dituzten diru-laguntzen berri eman du Miguel Laparrak

Diru-laguntzak 2016an baino %150 handiagoak izanen dira

Fernando ETXEBERRIA

Azaroaren 24an, Iruñean, Nafarroako Adinekoen Kontseiluaren bilera egin zuten, Miguel Laparra lehendakariordearen gidaritzapean, Arkupeak elkarteko lehendakaria eta idazkaria bildu zirelarik. Bilerara deiturikoei Nafarroako Adineko Kontseiluaren osasera, antolaketa eta funtziona-

mendua biltzen duen foru-dekretua argitaratu aitzinetik, beren proposamenak aurkezteko aukera izan zuten. Bertzeak bertze, kontseiluaren egitekoak, bokal kopurua eta hautaketa sistema izan zituzten hizpide. Ordezkariek, bereziki, lehendakariordeak diru-laguntzen inguruan emaniko informazioa eskertu zuten. Horrek adierazitakoaren arabera, heldu den urtean 2016an baino %150 gehiago izanen dira. Zehazki, 650.000 euro izanen dira funtzionamendu kontueta-rako eta 720.000 euro programetarako.



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Saldiasen izan eta gero urteko azken ateraldia Berastegira

Azaroaren 21 ean, Arkupeak elkarteko 40 mendizalek irteera egin zuten Saldiasen. Udaletxean bildu eta argazkia atera ondotik, Labaiengo muga aldera jo zuten, eta Larrazabal, Allu, Pagoeta, Amesa eta antenatik, Oala, Urrasa eta Gorostietan barna, bueltan-bueltan Saldiasera itzuli ziren. Ondotik, mendizaleak ez ezik, bertze lau lagun ere elkartu ziren bazkarian. Bazkalondoa, Tomasen eskutik, musika izan zuten. Hurrengo ateraldia, urtea borobiltzeko, Berastegira eginen dutena adosteaz gain, heldu den urtera begirakoak ere zehazturik utzi zituzten: urtarrilean Berara; otsailean Hondarribiara; martxoan Etxalarerra; apirilean Igantzira; maiatzean Leitzara; ekainean Urdazubira; uztailan Txindokira; abuztuan Saioa edo Mendaurrea; irailan Gorbeara; urrian Aiako harrietara; azaroan Eratsunera; eta abenduan Doneztebera joanen dira. Mendi irteerotan parte hartzeko mendi-asegurua eta irteera baino bortz egun lehenago izena ematea beharrezkoa izanen da.

17. BULETINA

Elkartearen urte osoko gorabeherak biltzen dituen buletina kalean da dagoeneko

TTIPI-TTAPA

Kalean da dagoeneko Arkupeak Elkarteak aurten izaniko gorabeheren 17. buletina. Bertzeak bertze, elkarteko kideen eta bidaien, mendi irteeren, ikastaroen, hitzaldien, lehiaketan, erakusketan eta jubilotekin informazioa biltzen du.

Aurtengoan 2.683 bazkide izan ditu elkar-teak. Izan ere, 81 kidek (51 hil direlako eta ber-

tze 30ek nahi izan dutelako) elkartea utzi-agatik, 147 lagunek eman dute izena. Hortaz, joan den urtean baino 66 kide gehiago dira.

Eginiko jarduerak eta horietan izandako parte-hartzea ere nabarmena izan da: 3.325 bazkide ibili dira urte osoan egin diren 21 bidaietan; 552 kide 12 mendi irteeretan; 390 lagun 40 ikastaroetan;

eta 199 Bera, Elizondo, Doneztebe eta Leitzako hitzaldietan.

Era berean, elkartea bera ez ezik, antolatutako jardueren berri emateko, urte osoan hedabideek eskainirikoa laguntza ere azpimarratu nahi izan dute: Ttipi-Ttapako 22 kronikak; Xorroxineko bertze hainbertze elkarrizketa; Xaloe eta Hamaika telebistako ekarpenak; eta Diario Vasco, Dia-

rio de Navarrak eta Noticiasek eginikoak.

Ildo beretik, Arkupeak elkartearen laguntzaz, 32 lagunek Frantzia eginiko lanaldiko erretiroa hartu dutela azpimarratu dute. Horretarako, bertzeak bertze, behar zituzten dokumentuak prestatzen eta falta zituztenak Behobiako bulegotik lortzen lagundu dute.

Azkenik, urte batzutan defizita izatetik aurtengo diru-sarreretara bitarteko aldaketa azpimarratu nahi izan dute, hein handi batean loteriarri esker. Halaber, Nafarroako Gobernuari di-

ru-laguntza eskatu diotenen 152 elkar-teetatik Arkupeak izan da gehien jaso duena. Areago, 16.000 euro jaso dituen bakarra da, ondorengoek jasotakoaren bikoitza jaso duelarik. 2016an, Gobernutik 16.147,13 euro jaso zituzten, aurten berriz, joan den urtekoaren bikoitza baino gehiago: 33.831,18 euro, zehazki.

Noski, ezin erran hori hobekuntza ekonomikoaren ondorio baino ez denik. Ekonomia-batzordeak eginiko lanak eta proiektuak ere badute eragina.

din, dan, don eguberri on!

zorion, zorion, gabonak din, dan, don



Zentzuz erosiz, haurrak balioetan hezi

Jolasak haurren gozamerako eta balioetan hezteko tresna izan daitezke, baina horretarako zentzuz erosi beharra dago.

Geroz eta gehiago dira Eguberrien atarian erosketak egiteko kontzientziario kanpainak. Hori horrela, egun, aunitz dira, berdintasunean eta taldean jardunez gozatzeko eta balioetan hezteko oparitzen diren jolasak. Baina, noski, horretarako, nahitaez, zentzuz erosi behar izaten da.

Eta ondotik...

Ezin erran daiteke erosi aitzinetik galdera horiek aintzat hartzeak balioen heztea bermatzen duenik. Izan ere, jolasa bera bezain garrantzitsua izaten da jolasa planteatzeko modua eta horretan eginkizun nabarmena dute guraso eta hezitzaileek.

Erosi aitzinetik...

Haurrak eskatzen duen opari kopurua eta horietako bakoitzak balioetan hezteko duen eraginkortasuna aztertzea komeni da. Bertzeak bertze, honakoa galdegin diezaiokegu gure buruari: jostailuak kultur, sexu edo genero aldetik bazterketarik eragiten al du? Ingurumenarekiko edota animaliekiko errespetua adierazten du? Parte-hartzea sustatzen du? Eta gure kasuan... euskararen egoera elebidun diglosikoa tarteko, honako galdera atxiki diezaiokegu balioetan hezteko saiakera horri: euskararen erabilerarako mesedegarria al da?

Euskaraz erosi, hizkuntzari eutsi...

Nafarroako udal gutti batzuen ekimenez argitaratu zen lehenengo aldiz **Euskarazko Produktuen Katalogoa**. Urtez urtez izugarri hazi da parte-hartzaile kopurua, eta egun, Euskal Herriko 140 udal eta mankomunitatetako euskara zerbitzuek parte hartzen dute. Haur, gazte eta gurasoentzat 6.000 produktu inguru biltzen ditu katalogoak: aldizkariak, musika, liburuak eta ebookak, etab. Urtean behin argitaratu eta zabaltzen da: Euskal Herrian 125.000 ale inguru banatzen dira eta horietatik 3.700 ale banatu dira gure eskualdean. **Katalogoa.eus** atarian, interneteko bertsioa ere eskaintzen da, paperezkoan baino produktu gehiago biltzen dituena. Areago, pixkanakako hedapenaren ondorioz, dagoeneko twitter eta facebooken ere aurki daitezke katalogoko produktuen berri.

Adituek jolasak nortasunarekin loturiko bortz parametro garatzeko eraginkorrak direla diote: garapen psikomotorrerako, afektiborako, sozialerako eta zentzumen zein ezagutzaren garapenerako.

TOKIZ ALDATU GARA!

Jai berrientzako behar duzun guztia eta jostailu aukera zabala

maxibebé **Toy PLANET**

Erakusketa areto handia
Kotxeko silleketan adituak
Aparkaleku propioa

Letxunborro, 86 • IRUN | T. 943 45 75 10 | www.jostamendi.com

Gabonetako jostailu guztiak
Aholkularitza eta arreta personalizatua

Orain Artalekuko dendan zure jostailu guztiak

Artaleku, 3 • IRUN • T. 943 63 82 23

din, dan, don eguberri on!

zorion, zorion, gabonak din, dan, don

Karma ESTETIKA

OPARI TXARTELA
Zure esku

Oparitu goxotasuna!

Aurpegirako tratameduak
Erlaxatzeko masajeak

Altzate 33 BERA · Tel.: 948 63 09 04

LIRAIN

ESTETIKA eta ONGIZATE ZENTROA

- Xaboi naturalak
- Gatz bereziak · Kremak
- Aromaterapia
- Masaje terapeutikoak

Ongizatea oparirik onena!

Iparraldea, 1 · 31780 BERA
Tel.: 948 625 717

M&S Ilo-apaindegia Estetika

- EMAKUMEENTZAKO ILE-APAINDEGIA, ESTETIKA ETA SOLARIUM
- GIZONEZKOENTZAKO ILE-APAINDEGIA ETA BIZARTEGIA

Eskatu aurretik ordua
Iturlandea, 4 | 31780 BERA | T. 948 630 483

Orrazkera eta tratamenduak, edertasunaren sekretuak

Norberak bere produktuei eta estiloari eutsi nahi izaten dio, gustuko duena edo ongi gelditzen zaiona hori baino ez delakoan. Halere, komenigarri izaten da indarrean dauden joerak ezagutzea, oraindik orain probatzeke ditugun orrazkerak, produktuak edota tratamenduak ere mesedegarriak izan daitezke eta.


Bolumena, gehien nabarmenduko dena

Udazken neguko orrazkerak irudikatzean, oro har, ile luzea datorkigu burura. Halere, azken urteetan **ile motza edo melena laburra** ak gailentzen ari dira. 2018an, sorbalda gainteko melena **nahasiak**, orrazkera jakinik gabeak eta **bolumen handikoak** dira nagusi. **Kopetatileak** ere gero eta gehiago

ikusiko dira. Aitzitik, zuzenekiko kontrastean, alde batera orraztuak eta irekiak izanen dira nagusi. Koloreari dagokionez, ile-horia ez ezik, **marroia** gero eta gehiago ikusiko da. Halaber, mugimendua eta arintasuna lortze aldera, **urre edota kobrekoloreko ile-sortekin** konbinatuko da maiz.



Aldeak nabarmentzen dituen orrazkerak izanen dira mutiletan nagusi, horretarako, bi aldeak arraldatuko direlarik. Hala, erdiko ileak luzexagoak utzi eta **goiti edo alde batera** orraztuko dira. Emakumeengan ez ezik, mutilengan ere **orrazkera nahasiak** ikusiko dira.





Kaskamotza eta nahasia, ile **mozketa asimetriko** batekin konbinatuz, kontraste ederra lor liteke. Orrazkera informal hori, **bizar** pixka batekin konbinatzea gomentatzen dute, itxura eta erosotasuna lortzeko. Bertzalde, **kopeta-ileetan arintasuna** izanen da nagusi, ile gutti eta nahasiak edota motzak eta goruntz orraztuak nabarmenduko direlarik.

Azala zaintzearen garrantzia

Aurpegiko tratamenduek azalari mesede egiten diote. Izan ere, hidratatzen, elikatzen, zuzentzen, dentso bilakatzen, gaztetzen, argitzen edota gorritasunak baretzen laguntzen dute. Azalak aldartearen edota bizi-kalitatearen (bertzeak bertze, elikaduraren, loaren, kirolaren edo medikazioaren) arabera, barneko eta kanpoko aldaketak jasaten dituzenez, noizean behin pertsonalizatutako tratamendua beharrezkoa da gure itxura hobetzeko. **Urtean, guttienez, aurpegiko hiru tratamendu** egitea eta adituen esku uztea gomentatzen da.

Aurpegiko tratamenduak dagozkion maiztasun eta moduan eginez gero, base gutti nahikoa izanen zaigu modan egoteko. Izan ere, aurtengoan, **naturaltasuna** eta **makillaje osasuntsuak** dira tendentzia nagusiak. Betiletako permanentea eginez eta begi-itzal beltzak eta lausoak erabiliz, begiradaren sakontasuna lortuko duzu. Ezpain eta masailalboetan, berriz, kolore arrosa nagusituko da.



EGUBERRI ZORIONTSUA OPA DIZUEGU!

**Oparitu ongizatea eta edertasuna
zeure buruari edo beste norbaiti**

AURTEN ERE DESKONTU BIKAINAK!



LURRIN-DENDAK

IBARDIN · DANTXARINEA · VALCARLOS

din, dan, don eguberri on!

zorion, zorion, gabonak din, dan, don

Zorionak eta eguberri on!

M
MERCHE MODA NOVIOS
Serapio Múgica, 11
20302 IRUN
943 612 626

www.capelettimercheirun.com

Momentu bakoitzari berea...

Urte sasoi hau euskal tradiziozko arropak armairu xokoetatik ateratzeko ez ezik, arropa erosi edo oparitzeko tenorea izan ohi da. Momentu bakoitzean aukeratzen duguna aukeratzen dugula, segidan, jakin beharreko zenbait alderdi bildu ditugu.

Tradiziozko janzkerak

Baserritarren arropak janzterakoan, maiz, ezjakintasuna tarteko, kutsu tradizionala zapuzteko joera handia dago. Erraterako, nork ez du eguraldia begiraten oinetakoak jantzi aitzinetik? Tradizioz, oinetakoak jantzi motaren arabera aukeratzen ziren: abarkak, bereziki, lanerako; eta alpargatak, dotore janzteko paratzen zirelarik. Alpargata txuriekin media edo galtzerdi beltzak eta beltzeekin txuriak ziren nagusi. Areago, egun erabiltzen diren go-mazko abarkak geroago hasi dira erabiltzen.

Gizonak

Kolore bakarreko edo marra fineko galtza beltzak, grisak edo urdin ilunak, gerrikoarekin ongi lotuak, erabiltzen zizuten. Jaiegunetan, dotore egoteko, alkandora txuria eta lanerako beltza jantzi ohi zuten. Gainetik, txaleko koloreduna eta kolore apaleko blusoia ere paratzen zuten.

Emakumeak

Buruko zapiak esanahia izan ohi zuen. Ezkongabe eta umeek ez zuten jantzi beharrik izaten. Halere, ilea beti bilduta eta kopeta-ilerik gabe ibiltzen zuten. Jantztekotan, marradunak edo loredunak izaten ziren. Zapi zuria ezkonduak eta beltza alargunek erabiltzen zuten. Belarritakoak boladunak edo zintziilikarioak, baina, kasu batean zein bertzean, tikiak izaten ziren.



Azken joerak

Oro har, negu giroan kolore iluna nagusi izanagatik, aurtengoan kolore laranja eta gorrixkak, plateatuak, estanpatu loredunak, tela bakeroak... denetarik ikusiko da erakusleihenetan. 2017-2018 denboraldian aitzineko urteetako joerak pil-pilean jarraituko du. Hala, aurtien ere, arropa laso eta zabalak, forma jakinik gabeak nagusituko dira. Aitzitik, estilo modernoekin uztartuz, nahi duenak kurbak markatzeko aukera ere izanen du.

EGUBERRIETAKO OPARIAK:

- Moda
- Osagarriak
- Lurrinak
- Kosmetika

Zehur asmatzeko dugula!!

Amaya Picabea
CENTRO DE ESTILISMO E IMAGEN

OPARI TXARTELA
Zure esku

Amezitia DONEZTEBE · T. 948 450 163 · centroamaya@zarbo.net

Kalash
JOYEROS
20etik aitzinera

Ekarri erabiltzen ez duzun urrea eta nahi duzun bitxia egingo dugu

Banatzaille ofiziala:

VICEROY CASIO CITIZEN ECO-DRIVE

Kanttonberri, 6 BERA | 948 630 751
Merkatarien Karrika, 7 DONEZTEBE | 948 451 519



Laukien artea(n)

Nesken kasuan, eskoziar estanpatudun gonak dira nagusi. Areago, laukiz beteriko estanpatuak loreekin konbinatuko dira. Baina gehiegikeriarik nahi ez baduzu, laukidun atorra bakeroekin jantzita azken tendentziekin bat egiteko aukera izanen duzu. Gona horiek takoidun bota altuekin jantziko dira. Bertzalde, cowboyestiloa ere xoko guztietan ikusiko da.

Ehundurekin jolasean

Mutilen kasuan, bakero ehundura duten alkandorak kolorez blai edo estanpatuekin apainduak nagusituko dira. Bakero ehundura soilik duten alkandoretan artilea erabiliko da maiz. Ukitu klasiko bat emateko, tabako koloreko galtzeekin eta larruzko bota marroiekin konbina daiteke. Ukitu modernoagoa nahi izanez gero, berriz, galtza grisak aukera bikaina izan daitezke.

Eguberria ailegatu da!

*Ongi etorri Venta Peio
merkatal zentroetara*

Eguberri on



ABENDUAREN 5ETIK URTARRILAREN 8RA



Eguberri eta Urteberri on!

Kimetz Belardenda
lorea

EGUBERRI GOZOAK ETA OPARIAKI!

Leitzako errep. 3 behea
DONEZTEBE - Tel. 948 451 473
info@kimetzbelardenda.com
www.kimetzbelardenda.com

KASINO
OSTATUA - RESTAURANTE



BERTAKO PRODUKTUAK
EGUNEKO MENUA
KARTA AUKERA ZABALA
KROKETA GOXO-GOXOAK

OPARI TXARTELA

Plaza Zaharra • LESAKA • 948 63 72 87



ARKUPE
Txokolataak
1984

IRURITA
Dukesa plaza
T 948580059
T 948452021
(Obradorea)

ELIZONDO
Santiago kalea 19
T 948452393

www.arkupegozotegia.com

din, dan, don eguberri on!

zorion, zorion, gabonak din, dan, don

Egun berak bizitzeko modu anitz

Eskualdeko herritar batzueri eguberriak orain artean nola bizi izan dituzten eta egun nola bizi dituzten galdetu diegu. *Lehen hala, orain honela, gero ez jakin nola*, baina bakoitzak bere modura eta denbora igaro ahala era batera edo bertzera bizi dituzten egunak direla ondoriozta daiteke.



Amaia Zelaieta. Etxalar

«Eguberriek nostalgia eta samintasun puntu bat ere badute»

Eguberriak «giro goxo eta konpainia onean pasatzeko denbora» dira Amaiaentzat. Egun horietan sortzen den «giro lagunkoi eta familiarra» da gehien gustatzen zaiona; guttigibelean dagoen interes ekonomikoa, diru aunitz alferrik gastatzen da eta opariak urteko bertze edozein egunetan egin daitezke». Orain artean, familia eta lagunartean, «mahai-inguruan otordu eta besta ederrak eginez, dantzan eta kantuan» pasatu izan ditu, baina orain «ahal bada egunok plan bereziren bat egin eta etxetik ateratzeko aitzakia» izan daitezen ahalegintzen da. Izan ere, egun horiek «bereziago egiten zituzten pertsonak ondoan ez izateak nostalgia eta samintasun puntu bat» sorrarazten dio.



Igone Iribarren. Oiz

«Aurtengo opari hoberena dagoeneko etxean dugu»

Urteak aitzinera joanagatik, «ilusio bertsuarekin» bizitzen ditu Eguberriak Igonek. Baserritar jantzia paratu eta «familia eta lagunarteko giroan» murgiltzen da egunotan. Halere, «aurtengoak bereziak» izanen direla aitortu digu, «Gabon gau egunean Olentzorro herrira etortzen den momentuan, haurren inguruan sortzen den giroa bizitzea opari bat izanen da, nahiz eta dagoeneko opari politena ailegatua zaigun». Otordu gehienak familian eginagatik, «Urtezharreko afaria lagunartean egitea» gustatzen zaio. Dozena bat lagun bildurik, mahai-inguruan «solosal-di ederrak egin eta bestara ateratzeko» aprobetxatzen dute. Urte berria ajearekin hasteak, «aurtengo bezain ona bada», ez du inolako eragozpenik.

Ainhoa Ansa. Arano

«Ahoa betetzen zaigu baina ez dugu kontzientzia hori behar bezala erabiltzen»



Eguberrietako «opor, hotz edo sutondo usainaren bueltan», haurtzaroen, «Olentzoreren zain» pasatzen zituen egunak Ainhoak: «Eguberri Egunean ohe hanketan erregaluri baten begiratzen genuen, begietako makarrak kentzeko betarik gabe». Egun, «umeen zalaparta» du iratzargailu. Oparien bueltan «sentimendu gazi-goza» izaten ditu: «gaziak, gauzak banatu behar liratekeelako; eta gozoak haien ilusioa ikusita». Egunotako «hotza» da bereziki gustatzen zaiona, «merkatuetan paseatzeko eta etxeak goxatzeko bikaina da».



BIOK

**SUPERMERCADO · SUPERMARCHÉ
SUPERMERKATUA**



IBARDIN

Alto de Ibardin, 28
T 0034 948 630 707

Alto de Ibardin, 37
T 0034 948 630 717

DANTXARINEA

Dantxarinea, 31
T 0034 948 599 093

Landibar, 5
T 0034 848 478 879

PARQUE COMERCIAL AXULAR
Dantxarinea, 5
T 0034 848 478 881

VALCARLOS

Barrio de Ventas, s/n
T 0034 948 790 179

www.ventabiok.com



HOTEL - VENTA - RESTAURANTE

Eguberri eta Urteberri on
lagun eta bezero izan zaituztegunoi!

Abenduaren 18tik urtarrilaren 5era ITXITA

Iruñea - Irun errep. 60km · 31760 ETXALAR
T. 948 635 000 · F. 948 635 263
info@etxalar.com · www.etxalar.com

Errege egunerako
menu berezia

URTARRILAREN 6 eta 7an

Hasierakoak

Hainbat gaztekin egindako entsalada
Bertako tomate entsalada hegaluze mendrezkarekin
Lur eta itsaso entsalada epela
Betiko erara egindako arrain-zopa
Nafar erara prestatutako potxak
Barazkitxoak urdaiazpiko olio errearekin
Valentziar erako paella

Bigarrenak

Ahate konfitatua samin-goxo saltsarekin
Aretze txuleta garnizioarekin
Aretze masailak pure bereziarekin
Bakailao frijitua padron piperrekin
Mihi arraina menier erara
Baserriko oilasko errea laranjarekin
Txerrikumea

Postreak

Sagar tarta
Arroz esnea
Yogourt krema
Errege-eroska
Mandarina sorbetea
Etxeko flana izozkiarekin
Gaztanbera errea edo erre gabea
Kremaz betetako kanutiloak txokolate beroarekin

*Azken orduko aldaketak salbu



25€
Edaria eta
BEZ-a barne

Erreserbak
egiteko
info@etxalar.com
Tel.: 609 402 229



Beola Etxea

VENTA

Ibardin gaina, 30 BERA | T. 948 630 709
www.beolaetxea.com



Arropa-denda
-20%
Arropa
Oinetakoak
Boltsoak

Lurrin-denda
-5%

PROMOZIOA:
Azaroaren 27tik
Urtarrilaren 6ra

Gabon zoriontsuak
eta urte berri ona
opa dizuegu!





Julian Otondo. Ziga

«Gaur egun umeez denetarik dutenez, ez dute guk bizi genuen ilusioa bizitzen»


Eguberriak kanpoan pasatzeko joera dute aunitzek. Batzuen gozamina, berteentzat lana denez, «landa-etxean lanean» ibiltzen da Julian. Halere, leihoetako zirrikuetatik Zigako haurrak «etxez etxe urtatsak biltzen» ikusteko aukera ez du galtzen. *Gau eta eguna betiko, ohiturak aldiko* erranak dioen bezala, aldaketa nabariak antzeman ditu bai herrian izaten diren ekintzetan, baita horiek bizitzeko moduan ere: «garai batean gaztainak, intxaurrek eta sagarrak biltzen genituen, egun, berriz, litxarkeriak ematen dira». Areago, «gaur egun umeez denetarik dutenez, ez dute guk bizi genuen ilusio hori bizitzen». Haurra zela, pozik handiena «gaueko afariak» egiten ziola oitzen da, nahiz eta «filetea edo oilaskoa eta postreko betiko turroia baino ez» izan, «bertze egunetakoa ez bezalakoa zen guretzat». Olentzero ikusteko aukerarik ez zuten izaten herrian, «orain, berriz, herrira jaisten da, astoa lagun eta herriko trikitilarien soinuak inguratuz». Tiki eta handi elkartzean «sortzen den giroa, eta bereziki haurren aurpegietan adierazten den poztasuna» ikustea gustatzen omen zaio. Baina egun horietan kontuz ibili behar dugu «gehiegizko kontsumoaren gupil zoroak, nahigabe erortzen garenak, gorputzean eta sakelean egiten baitu kalte!».



Joxe Etxeberria. Urdazubi

«Urte berri ona desiratzeko kantatzen genituen kantak galduz joan dira»

Urdazubiko karraketan «apaingarriek eta bisitarien etorrerak» iragartzen dute Eguberrien etorrera. Garai batekoekiko konparazionean, egun «giroa aunitzez ere nabarmenagoa da». Orduan, seinale bakarra, «gauerdiko mezara joatea izaten zen». Pixkanaka, elizaren tokia karrak hartu du. Baina, eskualdeko herri gehienetan ez bezala, gabon gau egunean ez dira «ez kantuan ez eta eskean ere sekula atera». Aitzitik, «gabon zahar egunean, iluntzean abiatu eta biharamunean argitu arte, etxez etxe ibili eta 8:00etan mezara joaten ginen. Kantuak kantatuz urte berri onak desiratzeko genizkien herritarrei». Errege egunean ere «kantuan eta joareak joz» zalaparta ateratzen zuten. Hala, «erregeei etxea non zegoen erraten genien». Olentzero, aise beranduago ezagutu du Joxek: «erregeak baino ez ziren aipatzen eta ikusi ez genituen ikusten. Amak, urte batez, herriko soldaduek errege kabalgata itzurako bat egin zutela kontatu izan zigun, baina ez zen haurrentako, elizara joan eta Jesus haurra adoratzeko baizik». Opariak jasotzeko «urteko egun bakarra errege eguna zen», eta orduan ere, «goxokiak eta beharrezko opari ttipi bat» baino ez zen izaten: «oroitzen naiz behin egurrezko zaldi gupildun bat ekarri zidatela, etxeko erregea bihurtu zen!».



Jon Mikelarena. Legasa

«Hautzaroko urduritasuna ez da horren nabaria, baina ilusioa eta zirrara bere horretan mantendu da»

Eguberriak «ikaragarri» gustatzen zaizkiola kontatu digu Jonak. Eguraldiak normalean laguntzen ez badu ere, «familia artean egiten diren bazkari eta bazkalondoko egonaldietan, mahai-inguruan, ez da bustitzen». Urtezahar eguna da gehien gustatzen zaion eguna, «San Silbestre eguneko lasterketan parte hartu, ondotik, indarrak hartzeko etxean afari ederra egin eta lagunekin besta egiteko aukera» izaten baitu. Hemendik «Eguberri eta urte berri onak opa nahi dizkiet denei!».

ELIZONDOko plazan EROSKI CITY



Eguberri eta Urteberri on!

BEA ARRANDEGIA **esarte**

Asteleheneetik Larunbatera
 09:00 - 21:00

Foruen Plaza, 3 · ELIZONDO · T. 948 580 005



TXALUPA, S.I. ARRANDEGIA

Arrain eta marisko freskua aste osoan

Zorionak eta Urteberri on!

ENKARGUAK HARTZEN DITUGU



Kanttonberri, 3 behea · BERA
 T. 670 321 202 · 948 631 575



Santiago, 15 · Tel. 948 580 061 · ELIZONDO
 www.malkorra.com

sarobe[®]
okindegia gozotegia

Eztegara 25, Bera
31780 Nafarroa
Tel.: 948 630 899
www.sarobe.net



eguberri eta urteberri on!

- Turroiak - Bonboiak - Polboroiak - Panetoneak - Pastak - Errege errosoak...
guk eginak

Zorionak eta eguberri on!
Garbi *ogi & coffee*
KAFETEGIA - OKINDEGIA



**EGUBERRIETAKO
PRODUKTUAK
ETA ERREGE
ERROSKOAK**

Eguberri eta urteberri egunetan itxia

ORDUTEGIA: 07:30-13:30 / 16:00-20:30 • Asteazken eta larunbat arratsaldetan itxita
Iturlandeta, 6 BERA • Tel.: 948 625 673


Mendaur Motor

Leitzako bidea • DONEZTEBE | Tfnoa: 948 450 333

Autoen konponketa eta salmenta | Txapa eta pintura



Zorionak eta Eguberri On!!



Donezteben
18:00etan abiatuko dira gaztetxoak. Ondotik, helduek hartuko dute lekukoa.

Baztanen
Elizondoko plazatik 17:00etan abiatuko dira 12 urtetik beheitikoak. Hortik goitikoak, aldiz, 17:30ean.

Lesakan 13:00etan abiatuko dira Plaza Zaharretik. Helduek 3,9 kilometro egin beharko dituzte.

Urtez urte, pausoz pauso

Urtea akitzeko ohiturak aunitz dira: mahatsak jan, 'glin-glan, glin-glan, due-nak ez duenari eman' kantatu... Herriz herri eta etxez etxe aldakorrek izana-gatik, eskualdean, bertze toki aunitzetan bezala, mendi kaxkora igoz edo herrian barna antolaturiko San Silbestre lasterketetan parte hartuz, pausoz pauso ere ematen dute aunitzek urtez urteko urratsa.



Donezteben XII. edizioa

San Silbestre egunean, urteroko hitzordua izanen dute Donezteben Erreka Kirol Elkartearen eskutik. 18:00etan, udaletxetik, abiatuko dira 2003a baino beranduago sorturikoak eta zirkuitoari buelta bat emanen diote. Ondotik, helduek, 3,5 kilometro eginen dituzte. Irabazleei sariak emateaz gainera, parte-hartzaile guztientzat opariak eta guztien artean eginen diren zozketak borobilduko dute XII.edizioa.



Elizondon IX. edizioa

Baztango Lasterketa Taldeak antolatuta, Elizondon 17:00etan ekinen diote lasterketari 12 urtetik beheitikoek; 18:00etan, berriz, helduek. Nagusiek 3,9 kilometroko lasterketa eginen dute. 17:30ean izanen da izen-ematea, eta euro bat ordaindu beharko dute. Haurrek, aldiz, dohainik parte har dezakete.



Bortzirietako elkartasun keinua

V.Bortzirietako elkartasun keinua eginen dute urteko azken egunean Lesakan, Sare Lesakak antolaturik. Aurtengoan, igandea izaki, eguerdian eginen dute. 13:00etan abiatuko dira, Plaza Zaharretik eta 3,9 kilometroko lasterketa eginen dute. Izen-ematea egunean bertan eginen da, lasterketaren aitzinetik.

Erreka bueltan-bueltan mendira

Badira urte batzuk Erreka Kirol Elkarteak antolatuta, doneztebar eta ingurukoak Urtezahar egun goizean Mendaurreko mendira goratzen direla. Aurten ere, ez dute hutsik eginen. 07:30ean elkartuko dira autobus geltokian eta 10:30ean aterako dute urteroko argazkia. Urtez urte, mendizale kopuruak goiti egin du, eta egun ehun lagun baino gehiago biltzen dira Mendaurreko mendi tontorrean.



Baztandarrak abenduaren 30an

Baztanen ere, joan den urtean Auzarako igoera antolatu zuten Baztango mendigoizaleek. Aurten, ordea, irteera abenduaren 30ean, larunbatean, eginen dute. 08:00etan abiatuko dira Elizondoko plaza-tik. Erratzutik atera eta Mendigain, Soalar, Burga, Basabar eta Istauzen barna, Auzara goitituko dira eta bueltan-bueltan ibilbidearen abiapuntura, Erratzura, ailegatuko dira.

Goxune

Kafetegia - Okindegia



Eguberri on!!

Roskoak eta eguberrietako produktuak

Abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean 09:30-13:30 irekia

Sara kalea, 7 - BERA • Tel: 948 630 235



EGUBERRIETAKO ZURE OPARIRIK HOBERENA!!



SAKEL GUZTIENTZAT EGOKI!
RELAX ESCAPADA BIENESTAR Y BIENESTAR Y GASTRONOMÍA
NIGHT TU MOMENTO BIENESTAR A LA & DAY BIENESTAR Y RELAX CARTA

Sanvirila ametsak
www.sanvirilahoteles.com

BONUA "IBILBIDE TERMALA"

- Ibilbide termala (70min.) 2 pertsonentzako

BONUA "IBILBIDE TERMALA ETA BAZKARIA EDO AFARIA"

- Ibilbide termala (70min.) 2 pertsonentzako
 - Buffet bazkaria edo afaria 2 pertsonentzako

"TU MOMENTO BIENESTAR" AMETSA (pertsone 1)

- Ibilbide termala (70 min.)
 - Masaje 1 kartan aukeratzeko (25 min.)

"NIGHT & DAY" AMETSA

- Gaua eta buffet gosaria (2 pertsonentzako)

"RELAX" AMETSA

- Gaua eta buffet gosaria (2 pertsonentzako)
 - Ibilbide termala (70min.) / pertsona bakoitzeko

"BIENESTAR Y RELAX" AMETSA

- Gaua eta buffet gosaria (2 pertsonentzako)
 - Ibilbide termala (70min.) / pertsona bakoitzeko
 - Masaje 1 kartan aukeratzeko (25 min.) / pertsona bakoitzeko

"ESCAPADA BIENESTAR" AMETSA

- Gaua eta buffet gosaria (2 pertsonentzako)
 - Ibilbide termala (70min.) / pertsona bakoitzeko
 - Bazkari edo afari bat gure jatetxean

"BIENESTAR Y GASTRONOMÍA" AMETSA

- Gaua eta buffet gosaria (2 pertsonentzako)
 - Ibilbide termala (70min.) / pertsona bakoitzeko
 - Dastatzeko bazkari edo afari bat AROTXA JATETXEAN

"A LA CARTA" AMETSA

- Zure irudimenak nahi duena



HA MAI KE TAKO
 ERAMATEKO JANARIA

948
 631
 017

Sarrerak

Itsaski entsalada
 Entsaladilla errusiarra
 Arrain pastela
 Bieira gainerreta
 Bakailaoz edo onddoz
 beteriko piperrak
 Arrain zopa
 Ziazerba eta ahuntz
 gazta hostorea
 Onddo eta foie hostorea
 Porru tartaleta
 Txangurro krepak
 Txangurroa labean errea
 Porru eta ganbaz
 beteriko kurruskaria

Eguberrietako karta

Arrainak

Zapoa saltsa berdean
 Legatza itsaskiz beteta
 Legatza koxkera erara
 Bakailaoa drunguru erara
 otarrainskekin
 Bakailaoa saltsa berdean
 Izokin biribilkiak itsaskiz beteak

Haragiak

Txahal biribilkia saltsan
 Txerri azpizuna onddo saltsarekin
 Ahate azpizuna foie eta
 mahats saltsarekin
 Txerri masailak saltsan
 Txahal masaiak ardo beltzetan
 Bildots erdia errea (3 kg. ingurukoa)
 Zerrikume errea (5 kg. ingurukoa)
 Ahate confit-a laranja saltsarekin
 Temperatura baxuan eta hezurrik
 gabeko bildots errea

Enkarguak hartzen dira
 abenduaren 21a arte

Sara karrika, 7 - BERA (Agerran) Dendako ordutegia: 10:00-13:30 eta 17:30-20:00

Abenduaren 24ean
 10:00-13:30

GIZARTEA → ABENDUAREN 13, 22 ETA 24AN ETA URTARRILAREN 5EAN

Dagoeneko Eguberri usaina zabaltzen hasia da herrian

Urteroko ekitaldiez gain, aurten gurasoentzat tailerra izan da

Eneritz IRAOLA

Aste pare bat falta dira Eguberri giroan betebeteen sartzeko. Laister jarriko dute bai Olentzoren txokoa plaza zaharrean, baita jaiotza eta argiak ere. Urteroko ekitaldiek ez dute hutsik egingo eta aurten gurasoei zuzendutako tailer berezi bat ere antolatu dute.

GURASOENTZAT TAILERRA

Abenduaren 13an izanen eta jostailuei buruz aholkuak eman zituen aditu batek: jolasaren garrantzia, jokoak eta umeen garapen ebolutiboa, jostailuak aukera-

tzeko prozesua, etab. izan dituzte hizpide. Gizarte Zerbitzuek antolatutako tailer hori udal-tertxeko goiko aretoan izan zen, 16:00etan.

HAURREN EMANALDIA

Abenduaren 22an, arratsaldean, eskolako haurrek Eguberrietako emanaldia eskainiko dute. Kantuan, dantzan, antzezten... ilusioz dabilta prestaketa lanetan eta herritar guztiei zuzendutako saioa antolatu dute.

KANTU ETA ZINTZARRIAK

Abenduaren 24an, goizean, guraso eta haurrak kantuan ibiliko dira herrian. Iluntzean Olentzero etorriko da eta Errandoneko atarian egongo dira bere zain haurrak eta trikitilariak. Denak elkarrekin plaza aldera gerturatu eta han

opariak banatuko dizkie ikazkinak. Urtarrilaren 5ean, berriz, zintzarrien soinuak iragarriko du etxez etxe ibiliko diren erregeen etorrera.



ARGAZKIA: ALAITZ ESKUDERO

Pello Añorga idazlearen eskutik ipuinen mundua ezagutzen

Azaroaren 28an Pello Añorga idazlearen bisita izan zuten Nazabal eskolako ikasleek. Adi-adi entzun zizuten kontatutako istorioak eta primeran pasa zuten.



ARGAZKIA: ENERITZ IRAOLA

Euskara ahoan pesta giroan

Inguruak zuri-zuri egonagatik, herritarrak ez ziren etxean gelditu abenduaren 3an, Euskararen Egunean egun osoko pesta izan zen. Eguerdian trikiti eta panderoekin kantu jira egin zuten. Gero, Pake Tokin bazkaldu, eta bazkalondoa *Panpanoziri* aldizkaria aurkeztu zuten eta bideo emanaldian nahikoa barre egin zuten. Gaztainak eta gazta ere ez ziren falta izan sagardo eta ardo tragoxkarekin.

LEITZALDEA

GIZARTEA → ZERBITZUEN MANKOMUNITATEAK

Jostailuen kanpaina egin du

Eguberrien atarian, opariak aukeratzeko aholkuak bildu ditu

JM BARRIOLA

Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, eguberrien atarian, jostailuen inguruko kanpaina egin du. Kanpaina horren hel-

burua nagusia jostailuak aukeratzera joaterakoan irizpide batzuk izateko gakoak eskaintzea izan da.

Kanpainak bi momentu izan ditu: hasiera batean kartel bat za-

baldu zuten, txuri-bel-tzean, galdera bakar batekin: 'Zer joku mota nahi dute/dugu?'. Herritarren artean jakin-mina sortu zuela aintzat hartuz, gaian sakondu zuten. Horrela bada, ondoren, beste kartel bat zabaldu zuten. Azken horretan joku egokiena bilatzeko aholkuak aipatu dituzte.

Besteak beste, askorik gastatu gabe, eta ahal dela, irudimena erabiliz eta birziklatuz egin-

dako erregaluak oparitzea gomendatzen dute.

Era berean, publizitate harago, eta sexu bereizketarik egin gabe, egokiak eta gustukoak hautatu behar liratekeela adierazi dute.

Azkenik, elkarlana eta besteekin jolastea ahalbidetzen dutenak, adinaren arabera eta sormena eta norberaren gaitasunetan trebatzekoak dira aholkatzen dituztenak.

LEITZA

GIZARTEA → AZAROAREN 30EAN, 19:00ETAN

Herri proiektua abiatu dute Udalak eta herriko hainbat eragilek



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

Mugikortasuna, irisgarritasuna eta segurtasuna izan zituzten hizpide azaroaren 30ean.

Herritarren erosotasuna eta segurtasuna ditu ardatz

JM BARRIOLA

Leitzako Udalak eta herriko hainbat eragilek, herritarren mugikortasuna, irisgarritasuna eta segurtasuna izan zituzten hizpide azaroaren 30ean, 19:00etan. Izan ere, Leitzak, urte gutxiz, biztanleria bikoiztu du, bai Plazaola trenaren, bai eta Torras Papel paper-fabrikaren eraginez. Horrek, herriko egiturari, hirigintzari eta ohituretan aldaketa handiak eragin ditu. Besteak beste, kotxeak, asfaltoak, zebra-bideak, aparkalekuak, pasabideak... ugaritu egin diren heinean, arri-

kuak gehiago dira.

Hori horrela, eta herriko hainbat eragile eta kolektibok azken hilabeteetan adierazi dituzten kezkek tarteko, guztien ongizatea, denentzat irisgarria, jasagarria eta segurua den Leitzara eraitze aldera, herri proiektua abiatu dute.

Proiektuaren baitan, mugikortasunaren, irisgarritasunaren, segurtasunaren eta ametsetako Leitzaren inguruko hausnarketak jorratuko dituzte. Mugikortasunari dagokionez, Leitzako barne-trafikoaren diagnostikoa egin, kotxeen erabilera murrizteko portaera egokiak sustatu eta aparkalekuen berregituraketa egiteko plana sortuko dute. Irisgarritasuna lortze aldera, oztopo arkitektonikoak aztertu

eta herri inklusiboa erakitzeke neurriak hartuko dituzte. Segurtasunaz den bezainbatean, oinezko eta motor gabeko ibilgailuak lehenestea lortu nahi dute, herriko puntu beltz, ilun eta arriskuak identifikatu eta kaleak oinezkoentzat egokitu.

Hori guztiarekin, 'Zer nolako Leitzara nahi dugu?' galdetuz, ametsetako Leitzara sortzeko bideak urratzea dute helburu.

ABIAN DIREN LANKETAK

Herriko eragile eta talde batzuek dagoeneko bestelanketa batzuk paratu dituzte martxan. 2015ean, garraio publikoaren inguruko azterketa egin zuten, Okilleko kideekin oztopo arki-

teknikoak identifikatu. Hezkuntza alorrean, berriaz, Leitzara Urratsez Urrats kanpaina egin zuten. Azkenik, LeitzEKO kontsumo taldeak Tartarar plataforma sortu zuten, autoa elkarbanatzeko helburuz.

Janari bilketa

2014an hasi ziren herriko 9 emakume Elkagai bankuarekin lanean. Geroztik urtean bitan, maiatzean eta eguberri aurrean antolatzen dute janari bilketa, herriko beharra dutenei banatzeko. Aurtengoan, azaroko azken astean egin dute eta oinarriko elikagaiak (olioa, arrautzak...) gero eta gutxiago biltzen direla eta, kezka adierazi dute.

ABENDUAREN 16AN

Ernesto Che Guevararen erakusketa hausnarketa-ekin borobilduko dute

JM BARRIOLA

Aurten, Ernesto Che Guevara iraultzailea hil zutela 50 urte bete diren honetan, Torrea herriko tabernak eta Ateka-beltz herriguneak bere bizitzako irudiak jarri zituzten ikusgai, azaroaren 28an. Astelehenean, astearte, ostiral eta larunbatean, 19:00etatik 20:00etara egon zen zabalik eta jende andana hurbildu zen.

Orain, abenduaren 14an, erakusketa borobiltzeko, Ateka-beltzen bertan 'Che mitotik harago' izenburupean hausnarketa egingen dute, 19:00etan. Besteak beste, bizitzan hartu zituen erabakiak eta hautu horiek bere eguneroko bizitzan izan zuten eragina izanen dira hizpide.

EGUBERRI
ETA URTEBERRI ON!!

AINART
ILEAPAINDEGIA
Elbarren, 67 behea • LEITZA • 948 510 197

Ariztela

DEKORAZIO
TAILERRA
Eguberri on!!

OPARI TXARTELA
Zure esku

- ETXERAKO ARROPA
- KORTINAK
- EUSKAL JANTZIAK
- INAUTERITAKO TELAK
- SUJETADOREAK ETA BAINUJANTZIAK

f T. 948 61 06 11 • LEITZA
www.manuelariztela.com

GIZARTEA → AZAROAREN 28AN

2.679.159 euroko udal aurrekontua izanen du Udalak 2018an



Leitzako Herri Aretoa egiteko asmoa aurrera doa.

Aurtengoan ere UPNko zinegotziek ez dute batzarrean parte hartu

bezala, aurten ere, UPNko zinegotziak ez dute Ohiko Batzarrean parte hartu. Leitzako Udalak, 2.679.159,60 euroko aurrekontua onartu du, joan den urtean baino %7 handiagoa. Igoera hori, gehinbat, onartu zaizkien hainbat diru-laguntzen ondorioz izan da. Horiei esker, zenbait inbertsio egingo dira herrian.

Zorpetze mailak be-



BERDINTASUN BATZORDEA

100 komertzio eta establezimendu errespetuzko harremanen alde

Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira, hainbat ekitaldi antolatu zituzten. Azaroaren 24an, Udal adierazpenak irakurri zituzten eta Lujanbio eta Alberdiren saioa izan zuten. Azaroaren 25ean, berriz, Leitza, Goizuetza, Areso eta Aranoko Udalek errespetuzko harremanen aldeko kanpaina jarri zuten abian, harreman naturalak sustatu eta indarkeriari aurre egiteko. 100 establezimendu eta eragilek bat egin dute, errespetuzko harremanen aldeko mezua helarazten duten pegatinak itsatsi eta erasoan aurrean nola jokatu argitzen duten eskuorriak banatuz. Eragileon atxikimendua bilduz, Leitzako Komunikazioko Youtube atarian bideo bat jarri dute ikusgai, dagoeneko 1.000 lagunek ikusi dute.

herantz jarraitzen du. Urtero 200.000 euro inguru amortizatzen dira eta 2018a 500.000 euro inguruko zorpetzearekin amaituko du Udalak. 1989tik, lehen aldiz, milioi bat eurotik jaitxi da Udalaren zorpetzea.

Leitzako Herri Aretoa egiteko asmoan aurrerapausuak emanen dituzte. Proiektua lizitazioa aterako dute eta proiektua egiten hasiko dira datorren urtean.

PILeke dirulaguntzei

esker, zuntz optikoa herriraino ekarriko da. Gainera, 2018 bukatu aurretik, etxeetarainoko saretxea egitea espero dute.

Mendian inbertsio handiak egiten ari da Udala. 2018 urte hasieran, esaterako, zuhaitz landaketa handia egiten da, 40.000 euroko kostua izanen duena.

Plazaolako geltokian, Ederbidea proiektuari esker, biltegiaren erakinean zaharberritze la-

nak eginen dira eta komun publikoak jarriko dira.

Ondare historikoari dagokionez, Nafarroako Gobernuak Ibero dorrean zaharberritze lanak egin eta gero, Leitzako eta Goizuetako Udalek "BIC" izendapeana lortzeko kudeaketak martxan jarriko dituzte.

Parte-hartzea sustatzeko, turismoa, bertaiko produktua eta mugikortasuna bezalako gai estrategikoak herritarrekin batera lantzen jarraituko dute. Berdintasun arloan, indarkeria matxistaren aurkako protokoloa eta Berdintasun Plana berrituko dira.

Aurrekontua behin betiko onartzean, herritarrei modu zuzen eta zehatzagoan aurkeztuko diete. Horretarako, bideo bat prestatu eta batzar irekia deituko dute. Horretaz gain, aurrekontua www.leitza.eus atarian edonork esku-ragarri izanen du.

MUSUNZAR
OSTATU-JAETXEA

OPARI TXARTELA
Zure esku

facebook
twitter

Elbarren, 14
948 51 06 07
31880 LEITZA

www.musunzar.com

Olaia Bazar

Jantziak - Loreak
Jostailuak - Papertegia
Garbiketarako Produktuak
Etxeko Tresnak
Herramientak - Oinetakoak
Pijamak - Osagarriak

OPARI TXARTELA
Zure esku

Landabekoa - Leitza - T. 948 510 437 - 667 675 463

GOIZUETA



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

32 bikote hasiak dira zenbait kategoriatan.

KIROLA → FINALAK URTARRILAREN 13AN

Umore Ona II. Pilota txapelketa abiatu da

32 bikote hasiak dira, iaz baino zortzi gehiago

TTIPI-TTAPA

Abenduaren 1ean abiatu zen II. Umore Ona pilota txapelketa. Aurtengoan zazpi asteburuz, 60 partida inguru jokatu dira. Ostiralean 18:00etan hasita, larunbatetan 17:00etan eta igandetan 10:00etan izaten dira partidak. Pilotari nafarrak ez ezik, gipuzkoarrak ere parte hartzen ari dira. Guztira, 32 bikote, hau da, 64 pilotarik eman dute izena.

Abenduko azken larunbatean eta urtarriko lehendabizikoan jokatu dituzte final erdiak. Finalak, berriz, urtarrilaren 13an jokatu dituzte.

Kulturaldiko azkenak

Aurrekoan aipatu bezala, azaro kulturala abenduraino luzatu da aurten. Hori horrela, abenduaren 2an *Errefuxiatuak* hitzaldia eskaini zuen Luzia Etxeberria Nafarroako Brigadistak elkarte kide goizuetarrak, Gazte Asanblada eta Gizarte Zerbitzuarekin elkarlanean antolatua.

Abenduaren 3an, *Harria. Maitasun istorioak* kontakizuna eta era-kustaldia eskaini zuen Iñaki Perurenak.

Azkenik, abenduaren 16an, larunbatean 10:00etatik 13:00etara bitarte, turroi eta mazapan ikastaroa izanen da, eguberrietan etxean egiten den turroi gozoa dartzeko. Amaia kafetegian eman daiteke izena.



Ba al zenekien

Errigora kanpainako 70 saski banatu direla herrian.



ARGAZKIAK: FELIX LOIARTE

Maixux Zugarramurdi eta Ansa ahizpak (ama-alabak) eta eskulangile postuak ferian.

AZAROKO AZKEN ASTEBURUAN

Artantxuriketan etaazienda feria eguna, euriari aurre egiteko ekitaldi gozoak

TTIPI-TTAPA

Hamalagarren edizioa bete du aurten herriko hainbat elkarte, talde eta eragileren eskutik antolatzen den Feria Egunak eta aurten ere jendetza ibili zen azaroko azken larunbatean. Eguraldi euritsuaz babesteko eskolako frontoian jarri behar izan zituzten eskulangileen postuak. Aurten ere, bezperatik hasi da festa, *Artantxuriketan* emanaldi gozoa eskaini baitzuten Maixux Zugarramurdi eta Ansa ahizpek (ama-alabak) eskolako jangelan.

Larunbat goizean aziendak eta artisau eta nekazaritza postuak ikusgai izan ziren. Herriko artisauak ere beraien erakustaldiak eskaini zituzten: ataka bazterrak (Artantxuriketan), sagardoa (Yandeneoak), si-

foia (Luixin), egur taila (Garbiñe), ardi-entzua (Olaso), joareak (Belako), haria (Mikela eta Anttoni), artoa kerkeili (jubilatua), torrijak (Koro eta Mertxe), ezti (Jimenez), garagardoa (Iñigo), harri taila (Andoni) eta erraldoiak (Yandeneoak). Aziendei dagokienez, baserrietatik eramandako ardi, zerrama eta zerrikume, oilo, asto eta zaldiez gain, ikusmina piztu zuten Urdazubitik Mattin Villaresek eramandako Galizako *cacheta* arrazako behi adar haundiek.

Goizean zehar trikitilariak ere aritu ziren kaleak alaitzen. Urtero bezala jendetza bildu zen goiko frontoiko bazkarian (ia 500 lagun) eta dantzari aritzeko aukera izan zen Bixenteren doinuekin udaletxeko gorapean.



HAU EZ DA ZABORRA, ONGARRIA BAIZIK

Gai organikoen hondakinak bereizi eta birziklatzea eskuzabaltasunez eta zureekiko eta etorriko direnekiko konpromisoz jokatzeko da. Zure laguntzak gas kutsatzailerik gutxiago igortzeko, lurterako ongarria ekoizteko eta energia berriztagarriak sortzeko aukera ematen du.

EZ EGIN PASO ORGANIKOAZ!



BAZTAN

GIZARTEA → AZAROAREN 24AN ELKARRETARATZEA EGIN ZUTEN GURASOEK

Orain arteko gabezia moldatzeko bertze pediatria bat jarriko dute

1.400 familiari arreta-zerbitzua eskaintzeko espezialista bakarra ari zela eta hiru orduz baino ez salatu zuten

TTIPI-TTAPA

Elizondoko Osasun Etxearen parean, ehun guraso baino gehiago bildu ziren pediatrik gabe zeudela salatzen azaroaren 24an. Izan ere, bi aste eta erdi zeramatzaten pediatrik gabe, espezialista bakar batek egunean hiru orduz eskainiriko arreta zerbitzua baino ez zutelarik. Arratsaldean, berriaz, arazoaren berri emateko, Joseba Otondo alkatearekin bildu ziren.

1.400 familiari arreta-zerbitzua eskaintzeko espezialista bakar bat, eta hiru orduz baino ez, izateak dakartzan laguntza, ardura eta za-



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Ehun gurasok baino gehiagok protesta egin zuten Osasun Etxearen parean.

intza gabeziak jasangaitzak direla adierazi zuten herritarrek. Otsaile- bitarte, Elizondoko Osasun Etxeko pediatria lanaldi osoan ari zen. Alabaina, horrek, leku-aldatzea eskatu zuen. Orain, 08:00etatik 11:00etara baino ez dute, ondotik, pediatria Ultzamara joaten baita.

Orain artean gurasoek, beren kexak Nafarroako Gobernura biderratu dituzte, eta jasotako erantzun bakarra pe-

diatria espezialistetan gabeziak daudela izan da. Aitzitik, batzertze, 800 haurren arretarako pediatria bat izan ohi dela aintzat hartuz, eta Baztanen 1.400 inguru direnez gero, bi pediatrien beharra adierazi zuten: bat lanaldi osorako, eta bertzea, lanaldi erdian aritzeko.

Hori horrela, Nafarroako Osasun Zerbitzuak, Osasunbideak, Baztan eta Ultzamarako, zehazki, Elizondo

eta Larraintzarko Osasun Etxeetarako, pediatria bat paratu du, 2017ko Enplegu Publiko Eskaintzan eskainiriko mediku lanpostuarekin batera.

Hala, 08:00etatik 11:00etara bitarte pediatria bat, 11:00etatik 13:00etara bitarte erizaintza zerbitzua eta behar izatekotan, mediku arreta eta 13:00etatik 15:30era pediatrian eskarmentu handia duen medikua izanen dute.

FLASH

Marrazketa eta margo erakusketa

Pedro Arizkurenen marrazketa eta margo erakusketa zabalik dago abenduaren 1etik 22ra Arizkunenea Kultur Etxean.

Eguberrietako kontzertua

Baztango Udal Musika Eskolako ikasleek Eguberrietako kontzertua eskainiko dute abenduaren 16an, larunbat arratsaldeko 5etan Arraiozko elizan.

Mukuru besta Intza ostatuan

Abenduaren 16an Mukuru besta antolatu dute Intza ostatuan. Larunbatean 21:00etan hasita Klak!son, Txosti eta Kaskezur taldeek joko dute.

Emakumeen frontenis txapelketa

Baztango emakumezkoen frontenis txapelketa antolatu dute aurrean. Bikoteka bi kategoriatan banatuta ariko dira, eta lehendabiziko jardunaldia ilbetzaren 13an egingen dute. Txapelketako partida guztiak Oronoz, Erratzu, Lekaroz eta Arraiozko frontoietan jokatu dituzte.

Bidegain
Mercado-Azoka

Jaime Urrutia, 1
behea
ELIZONDO
T. 948 580 496

ONGI PASA BESTAK!

idoia oteia
ile apaindegia

ile-apaindegia | makillaje zerbitzuak

Plazaburua, 9 behea Elizondo | T 948 580 390 | www.idoiaoteia.com

GIZARTEA → ABENDUAREN 29AN BILERA

«Baztandarren Biltzarra besta kolokan dago»

Horrela ohartarazi du elkarteak eta kide berri aski ez bada biltzen, ospakizuna ez dela eginen

TTIPI-TTAPA

Baztandarren Biltzarra elkarteak hausnarke ta urtean dago. Duela hilabete batzuk aipatu zituzten zailtasunei ber te arazo potolo bat gehitu diote: «orai arte ginen kide kopuruarekin nahiko larri ibiltzen ginen besta aitzinerat atezeko; honekin ez aski, azken hilabeteetan kide kopuruajautsi egin da. Hortaz, eta egoera sakonki aztertuta, kide berriak sartzea ezinbertzekoa da». Honi konponbidea bilatzeko, abenduaren 29rako baztandar guztiei zu-

zendutako bilera bat deitu dute. Bilera Arizkuneneako sabaian izanen da, ortziralean 20:30ean.

Egun horretarako behar adina kide hurbiltzen ez badira, erabaki argia du Baztandarren Biltzarra elkarteak: Ez da Baztandarren Biltzarra besta eginen. Bitartean, elkarteko kideekin harremanean jartzeko hainbat bide eta modu erabil daitezke: elkarteko kideengana hurbildu, baztandarrenbiltzarra@hotmail.com helbidera mezu bat idatzi, [facebooka](#), abenduaren 29ko bilera... Atea denendako irekita dagoela azpimarratu du Baztandarren Biltzarrak.



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Baztandarren Biltzarrako kideak abenduaren 1ean egin zuten prentsa agerraldian.



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Azaroaren 25eko elkarretaratzea Elizondoko plazan

Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunaren inguruan elkarretaratze jendetsua egin zuten Elizondoko plazan.

Ile eta ile-larruaren araberako tratamenduak
Ilea zaindu eta hobetzeko terapiak
Keratina tratamendua
Kalitatezko produktuak
Hitzordua hartzeko deitu
948 580 894
DESCONTU KUPONAK

Estilistak
Ile-apaindegi mistoa
Santiago. 76 - Elizondo

Natura Etxea
BELARDENDA ETA DIETETIKA

Sendagai naturalak
Janari ekologikoak
Nutrizionista eta Medikuko Kontsulta
Barrita proteiko, energetiko eta gelak
Kosmetika naturala

Eta Gabonetan:
Turroi eta polboroi ekologikoak
Baita saski bereziak ere

Gabon xoriontsuak pasa!

SANTIAGO, 47 ELIZONDO T. 948 580 203

Ezkontzak eta ospakizunak

BEOLA

JATETXEA

Ospakizunaren araberako menu desberdinak eskaintzen ditugu

Nagusia, 1 | ALMANDOZ | T. 948 585 300 | www.beola.com | 686 152 917

BAZTAN

KULTURA → AZAROAREN 26AN SANTIAGO ELIZAN

75. urteurrena kontzertuarekin akitu du Elizondoko Abesbatzak

Elizondoko Abesbatza Ttikiarekin eta Recreo Musika Bandarekin kantatu zuten eta abesbatzan 60 urte daramazkin Martin Irigoien omendu zuten



tzako kide beteranoe-na den Martin Irigoien omentzeko ere baliatu zuten, 60 urte egin baititu abesbatzan.

Lehenik, Elizondoko Abesbatza Ttikiak kantatu zuen, Maki eta Cristina Urtasun ahizpen zuzendaritzapean eta Xabier Urtasun pianojole zutela. Ondotik, abesbatza handiaren txanda izan zen. Rosa Mari Sanchezek zuzentzen duen musika bandarekin eta Imanol Elizasu (pianojolea), Angela Nagore (zeharkako xirula) eta Ioritz Mitxeltorena (saxo soprano) musikariek batera, Josune Makibar sopranoa eta Maria Jose Alaña kon-



ARGAZKIAK: JUAN MARI ONDIKOL

Elizondoko Abesbatzako kideak, Santiago eliza bete zuten 75. urteurrenako kontzertuan.

traltoa aritu ziren bakar-lari moduan. Kontzertuaren ondotik, nola ez, bazkaria izan zuten Santxotengan.

Aipatzekoa da *Elizondo*'75 CDa ere argitaratu eman duela Elizondoko Abesbatzak, Be-

roetan eta Azpilkuetan emandako kontzertuetan zuzenean grabatua.

1942an sortu zuen Elizondoko Abesbatza Juan Eraso Olaetxeak eta Europako goi mailako jaialdi eta lehiaketan nabarmendu zen.



Pertsonaia

Angel ETXEBERRIA

Baztango Gorriek oroigarria eman diote

Baztango Gorriek-eko kideek peñaren eguna bazkari batekin ospatu zuten abenduaren 3an Elizondon. Osasunako bazkideen defendatzaile ohiari, Angel Etxeberriari, merezitako omenaldia egin zioten. Peñakideek Etxeberriari oroigarri bat eman zioten bazkideen eskubi- den alde egindako lanarengatik. Baztango Gorriek peñak aurten 14 urte bete ditu eta egunarekin batera urteko ekimenen egutegia aurkeztu dute. Balleko ikastetxeekin lanean ari da *Gela Gorritxoa* proiektua martxan jartzeko, bertako neska-mutilei kluba ezagutzera emateko. Aurten peñaren twitter kontua ireki berri dute, *@BaztangoGorriek*.

ANZABAL INMOBILIARIA



- Zurich Aseguruak
- Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
- Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
- Errenta Deklarazioa, BEZa...
- Inmobiliaria
- Baserri, borda, pisu, etab... salmenta eta alokairua
- Gestoria

Santiago, 15 • ELIZONDO • Tel. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ
T.948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com
www.harrilan.com

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

HARRI LAN, S.L.
ESTRUKTURALAK



BAITA ERE HORMIGOI INPRIMATUA →



**Etor zaitez gabon hauetan
bestak gurekin ospatzera**

Abenduak 25

EGUBERRI GAU

MAIN ROOM
COMERCIAL & PARTY MUSIC

MIKEL SEVILLANO
NASH
DUBI

SECOND ROOM
ELECTRONICA

JAVI COLINA
AIMAR
ZOCTAL

ORDUTEGI BEREZIA: 02:00-08:00 SARRERA+KOPA: 12€

LUR ARETOA

Lur
2018
WELCOME

DOMINGO 31 DICIEMBRE

** MAIN ROOM . MUSICA COMERCIAL & REMEMBER **

FRANK FUTURA

** SECOND ROOM . MUSICA ELECTRONICA **

JAVI COLINA
ZOCTAL
AIMAR

HORARIO ESPECIAL DE 02:00 A 08:00 - INTRO+COPA 12€

BAZTAN

OSPAKIZUNAK → ABENDUAREN 24AN ETA ILBELTZAREN 1EAN

Urte akitzeko eta hasteko ospakizunak egingen dituzte Anizen ere

Olentzero etxez etxe eta Urteberri egunean urtetx biltzen ibiliko dira

Maitane MARITORENA

Abenduaren 24an Olentzerorekin etxez etxe ibiliko dira aniztarrek. Arratsaldeko 5etan hitzordua egin, eta haur, gazte, guraso... Olentzeroren panpina soinean hartuta etxez etxe ibiliko dira baserriarrez beztituak, Bentatik hasita: Olentzeroren kantua kantatu eta etxe bakoitzean jana eta edana eskaintzen da. Haurrak diren etxeetan gainera, Olentzerok errege-

lu ttipi bat ekartzen die. Hondarreko etxea As-kagain izaten da, 20:30 aldera ailegatzen dira. Hiru ordu pasa etxez etxe ibili ondotik, norbera bere etxera joaten da.

Abenduaren 31n, urtea elkarrekin akitzeko, elkartean afaria izaten dute zenbait aniztarrek.

Urtea elkarrekin akitu, eta berria elkarrekin hasi. Ilbeltzaren 1ean, Urtetx Egunean, urtetxak biltzen ibiltzen dira aniztarrek, hontakokan ere etxez etxe. Goizeko 10:30ean izaten da

hitzordua, haur bakoitzak soinean mandarigisako bat izaten du sakel handi batekin urtetxak sartzeko. Etxe etxe joaterakoan urtetxen kantua kantatu eta etxe koandre edo etxe kogizonak urtetxak botatzen ditu: mandarinak, giltxaurrak.... haurrek lurretik hartu eta mandarreakan sartzen dituzte.

Eguerdialdera, etxe guztietan kantatu eta urtetxak bildu ondotik, norbera bere etxerat joaten da.



Ba al zenekien

Abenduaren 2an izan zela aurtengo hondar auzolana Anizen? Aizkoako bidean eta Olazarkoan zaborra bota zuten auzolanean eta bertze batzuk auzolanean egindako etxola txukuntzen aritu ziren.



ARGAZKIAK: MAITANE MARITORENA

Olentzero eta urtetxak, urte bukaera eta hasierako hitzorduak.

ferreteria Quevedo

TXERRI HILTZEAN
ERABILTZEKO TRESNAK



Santiago 31 · ELIZONDO · Tel.: 948 580 234 · www.ferreteriaquevedo.com

ZUGARRAMURDI

GIZARTEA



ARGAZKIAK: JOSEBINE ETA KORO

Telletzeko-borda aldera hasiak dira aparkalekua zabaltzen.

GIZARTEA → SOBRINO ERAIKUNTZA ENPRESA ARI DA

Azketako aparkalekua zabaltzeko lanak hasiak

Nafarroako Gobernuak 28.193 euroko diru-laguntza eman duela baliatuz

Josebiñe eta Koro

Herri gehienetan bezala, gurean ere, autoak aparkatzeko arazo

haundiak ditugu, eta horregatik Nafarroako Gobernuak emandako 28.193,42 euroko diru-laguntza, Azketako aparkalekurako erabiltzea erabaki du Udalak.

Bi fasetan egin beharra da lan hori: orain, Telletzeko-borda aldera harri-lubeta bat egiten ari dira, metro gehixeago zabaltzeko aparkalekua (lan horrek,

guztira 49.065,25 euroko kostua dauka), eta ondotik, autoak aparkatzeko marrak berrantolatuko dira, bertze gisa batera aparkatuz, gehiago sartuko direlakoan.

Lan hori egiteko lehiaketara hiru eraikuntza enpresa aurkeztu ziren, eta horietatik Construcciones Sobrino, S.L. izan zen aukeratua.

EUSKARA

www.era.eus ataria aurkeztu dute Nafarroan euskara zerbitzua duten toki-entitateek

TTIPI-TTAPA

Nafarroan euskara zerbitzua duten toki-entitate guztiek www.era.eus ataria sortu dute. Tartean, eskualdekoak diren Bortzirietako Euskara Mankomunitateak, Malerreko Mankomunitateak eta Baztango Udalak esku hartzen dute. Nafarroako Gobernuak diruz lagunduriko ekimen horrek, beren seme-alabak euskarazko irakaskuntza eredu murgiltzea hautatzen duten gurasoek dituzten zalantzak argitzea du helburu.

Egungo gizartean, eleaniztasuna gero eta gehiago baloratzen den testuinguruan, Nafarroako familia askok aukeratzen du euskarazko irakaskuntza, beren seme-alabek etorkizunean aukera gehiago izanen dituztela pentsatzen dutelako

Euskaraz ikasten duten haurren guraso anitzek, euskaraz jakin ala ez, toki-entitateetako euskara zerbitzuetara jotzen dute hainbat zalantzekin.



Guraso horien helburua argia da; seme-alaba hizkuntza-garapenean nola lagundu jakin nahi dute.

EDUKIAK

Webgunearen bidez gurasoei laguntza eta baliabideak eskaini nahi zaizkie. Helburua asebetetzera bidean, honakoak dira webguneoko ataliki esanguratsuenak:

- Gurasoen ohiko zalantzak argitzeko informazioa ematea.
- Haurrendako prestatutako edukien bilduma egitea: ipuinak, jolasak, musika, aplikazioak...
- 0-2 urteko haurrentzat eskolaz kanpoko jardueren bilduma osatzea: kirola, ikastaroak, ludotekak...
- Agenda osatzea, eskualdeko antolatua.

zergalan | asegi

asesores y consejeros de empresa
enpresa kontseilari eta aholkulariak

ORAIN ZERBITZU BERRIAK ESKAINTZEN DITUGU

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 - F. 948 580 648

www.zergalan.es | info@zergalan.es
www.asegi.com

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 - F. 948 451 304

Mármoles SOULE

HILETA ARTEA



T. 948 453 444
M. 688 605 182
ARIZKUN

URDAZUBI

GIZARTEA → MUNDUKO GASNA LEHIAKETA

Urrezko bi domina irabazi ditu Etxelekuak Londresen

Zilarrezko eta brontzezko bertze bana ere eskuratu dute

Iñigo IMAZ

Munduko gazta lehiaketarik ospetsuena den World Cheese Awardsetik sariak ekarri dituzte Etxelekuak gasnategikoek. Azaroaren 17an egin zen lehiaketa Londres hirian, eta Etxelekuak urrezko bi domina eta zilarrezko nahiz brontzezko batto eskuratu zituen.

Ez da nolanahiko saria, mundu osoko 3.001 gasna leihatu baitziren guztira eta 250 profesionalak ostaturako epaimahaia arduratu zen gasnak dastatu eta baloratzeaz. Etxelekukoek Idiazabal izendape-

na duten bertze 31 gasnategirekin batera parte hartu zuten, eta jatorrizko izendapen hori dutenen artean, hobere-na dela erran dezakegu. Izan ere, Idiazabalgo gasnek orotara bederatzizko domina eskuratu zituzten, eta horrez gain, 12 zilarrezko eta 33 brontzezko.

Bengotxea-Lastiri sendiak 27 urtez ustiatu du gasnategia Etxelekuak baserrian. Manuel Bengotxea eta Maribel Lastirik, Xabier eta Ana Mari seme-alabekin batera, etxeko 500 ardi eta hamabi ahari zaintzeaz gain, etxean berean, ardi eta behi gasna ekoizten aritzen dira egunero. Azken aldian, laukoteari Ana Mariren senarra gehitu zaio, Francisco Jimenez. Zorionak!



ARGAZKIAK: IÑIGO IMAZ

Etxelekukoek hainbat sari eskuratu dituzte beraien gasnekin.



ARGAZKIA: ONDIKOL

Ohikoaenez, ttiki gelditu zen jatetxea kantu zaharren egunaren bazkarian.

XIV. EDIZIOA

Kantu zaharren egun arrakastatsua Dantxarinean

Iñigo IMAZ

Urtero bezala, 500 lagunetik goiti bildu ziren azaroko azken larunbatean Dantxarinean egin zen kantu zaharren egunean. Anjel Mariezkurrenaren sortu eta gidatzen duen ekitaldiak, betiko moduan, ttikia utzi zuen Lugarana jatetxeko areto erraldoia. Hamalagarren edizioa izan da aurtengoa eta abesturiko lehen kanta *Euskal Herrian Euskaraz* izan zen eta Iparraldean ohi den bezala, bazkaria kantari hasi eta afaria dantzan amaitu zuten bildutakoek.

Edizio honetan, Euskalerrira irratia omendu zuten, bere 30 urteko historian, euskal kantak hedatzen egin duen lanagatik. Eta lehendabiziko aldiz, ohikoak diren artistei, Bankako Menditarrak taldea gehitu zion Mariezkurrenaren. Horrez gain, Aitor Ibarra *Jalisko*, Joserra Mitxelena, Jaione Olazabal, Francisco Santxotena, Francisco Herreri, Asier Oleaga, Juantxo Zeberio eta bertze zenbait musikari eta abeslari aritu ziren azaroaren 25eko kantu zahar egunean.

JATETXEA-ERRETEGIA
MONTXO
OSTATUA-TABAKO-DENDA

Egunero irekia
 09:00etatik
 02:30era

Dantxarineatik
 2 km. tara

PLATER KONBINATUAK · OGITARTEKOAK
 MENUAK ENKARGUZ · PINTXOAK
 ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA · URDAZUBI | 948 599 039
 montxoblanco@gmail.com

KULTURA → ABENDUAREN 3AN EMAN ZIREN SARIAK

51 bertso paper aurkeztu dituzte Larraldeako lehiaketara

Villabonako Amaia Agirrek irabazi ditu hiru sari nagusiak

Pierre BASTRES

Lehen aldia da Larraldea bertso paper lehiaketa elkarrekin antolatzen zutela Bertsolarien Lagunak eta Lapurdi 1609 elkarteek, bainan jasotako arrakasta ikusirik, ez dateke azkena izan. Odei Barroso, Panpi Etxegoin, Lierni Elortza eta Jokin Arregi epaileek dioten bezala, «guztira 51 lan aurkeztu dira lehiaketarat; horietatik 20 helduen mailan, eta 31 gazte eta gaztetxoan mailan. Maila eta kalitate handiko sortak aurkeztu dira. Bertsolarien Lagunak elkarteak Xumai Murua

izan da xedearen sortzailea, eta harrিতuta egon da Euskal Herriko xoko guzietarik parte hartu dutelako, eta adin guzietakoak gainera.

Helduen mailan, hiru lehenbiziko sariak Villabonako Amaia Agirrek eskuratu ditu, *Eutanasiari bai*, *Gure ADN* eta *Amari* bertso-xortekin. Sari berezia Urruñako Xumai Murua eskuratu du, *Senpereko buruxkak* bertso-xortarekin.

Gazte eta gaztetxoan mailan, lehen saria Aner Euzkitze zarauztarrak eskuratu du, *Jolastu nahi dut baina...* bertso-xortarekin, bigarrena Izurako Elixabet Etxandi Goienetxek, *Errutinaren bezero* lanarekin eta hirugarrena Hazparneko Irantzu Idoate Funosasak, *Lorentxari gutunala* narekin.



UTZITAKO ARGAZKIA

Partzuer eta epaile zombait: Amaia Agirre, helduetako irabazlea ezkerretik bigarrena.



ARGAZKIA: PIERRE BASTRES

Henri Duhau idazleak Beskoitzeko ur gazietaz mintzo

Henri Duhau idazle eta euskalzale senperrak, Beskoitze sorterrian aurkeztu du bere lanen bilduma, *Beskoitzeko ur gaziak* izeneko liburua. Entzuleen adimenerat ekarri du zoin hedadura izan zuten Beskoitzeko ur gaziak urte askotan, bai Euskal Herrian bai mundu osoan ere. Beskoitzen ere lurpeko gatzak ekoiztea eta baliatua izan da mendez-mende; lehenik baserritarrek zipuak edo putzuak zilatzen zizuten eta ateratzen zen ur gazi erabiltzen zuten sukaldatzeko. Haatik, hain handia zen Beskoitzeko gatzaren kalitatea eta kantitatea, non ekoizpena industrialia bilakatu baitzen XIX. mendean eta Espaniako erreginak berak erosi baizituen kontzezioak. Bainan bertze sekretu ikaragarria eta ahantzia salatzen du Henrik: «1892 Hezar ingeneriak erosten ditu Beskoitzeko ur gazi ekoizteko enpresa, eta ezinezko amets eroa gauzatu du: 22 kilometrako hodia eginaraziko du, Beskoitzetik Miarritzeraino. Hantxe eraikitzen du lehenbiziko ur-termalako etxea, Beskoitzeko urgaziaz hornituz! Miarritzek bere ospea egin du Beskoitzeko urari esker!!».

ARRETXEIA ESTANKOA

ZIGARRO PURUEN CAVA

DANTXARINEA (Urdazubi) | T. 948 599 018 | F. 948 599 015 | estancoarrechea@yahoo.es

SARA

GIZARTEA

GIZARTEA → ALDAKETAK MERKATUAN

Negu honetan ez da gehiago merkaturik eginen larunbatetan

Horren ordeztu bertze zerbitzu bat plantan ezarri dute eta mail bidez eros daitezke produktuak

Joana GERENDIAIN

Negu honetan ez da gehiago merkaturik eginen larunbat goizetan. Horren ordeztu, Sarako merkatuak bertze zerbitzu bat plantan ezarri du. Produktuak erosi nahi dituen pertsonak, mail bat igorri behar du sarakomerkatua@gmail.com helbidera, erantzunez manaketa orri bat errezibituko du, bete eta itzuli beharko dena. Manaketak erreku-peratzeko permanentsia bat izanen da ostiraletan arratsaldeko 5etatik 6etara.

Olentzero

Abenduaren 23an, eguberriko oporretako lehen egunean, Olen-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Olentzerori ongi etorria eginen diote herriko haurrek abenduaren 23an.

tzerori ongi etorria eginen diote herriko haurrek. Lehenik, arratsaldeko 4:30ean Sarako merkatari eta artisauen batzordeak krakada bat eskainiko du haur guzietan, 5etan Olentzero plazara iritsiko da eta ondotik herriko karrikak alaituko dituzte kantu eta musikarekin. Iluntzean, 6:30 aldean, herriko etxeak aperitifak es-

kainiko du saratarrei eta Sarako kantariak animatuko du momentu hori.

Berriemaile bila

Heldu den urtetik goiti Ttipi-Ttapak berriemaile bat beharko du Sarako herriarentzat. Interesatua bazira harremanetan ezar zaite Ttipi-Ttaparekin: info@ttipi.eus.

Kirol emaitzak

Azaroaren 25ean, eskubaloian jokatu dute eta Urtxintxak taldeko ekipo guzietan galdu dute: 18-15, 11 urtez azpikoentzat; 28-13, 13 urtez azpikoentzat eta 26-14, 18 urtez azpikoentzat.

Azaroaren 26an, errugbian 76-0 irabazi dute basurdeek Amouko ekipoaren kontra.

EUSKARA

Euskarazko Produktuen Katalogoa banatu dute

TTIPI-TTAPA

Baztan, Malerreka, Bortzirriak eta Leitza, Arano, Goizueta eta Aresoko euskara zerbitzuek Euskarazko Produktuen Katalogoaren paperezko edizioa banatu dute 16 urte bitarteko haur eta gaztetxoaren artean. Webgunean ere badago (katalogo.eus), urte osoan erabilteko moduan.

Urteko garai honetan seme-alabei edo ingurukoei euskarazko liburu, musika edota jostailu eta jokoak erosi eta opari egiteko aukera paregabea izaten da. Erabiltezaileari lana errazteko, Euskarazko Produktuen Katalogoaren 19. edizioa osatu berri dute. Katalogoa eskualdeko euskara zerbitzuek Euskal Herriko 140 bat udal eta mankomunitatetako euskara zerbitzuekin elkarlanean prestatzen dute.

Egunotan banatuko dira paperezko edizioaren 125.000 aleak Nafarroan, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Ale bat eskuartean duenak, berehala ohartuko da bi azal dituela paperean editatzen den katalogoak: azal batek 12-16 urte bitarteko gaztetzat eskaintzen diren produktuei ematen die sarbidea, eta beste aldeko azalak 0-12 urte bitarteko haurrentzako produktuei eta gurasoentzako materialei.

EGUBERRIETAKO ORDUTEGIA

Asteleheneetik ostiralera: 9:00-18:00
Abenduak 9 eta 16, larunbata: 9:00-14:00
Itxaroten zaituztegu.

Martiko. Zalain s/g. 31780 Bera. Nafarroa
Tel: 948 625 016 Fax: 948 625 036
www.martiko.com · martiko@martiko.com

tanatorios
IRACHE

24 ORDUKO TELEFONOA
948 581 959 | 948 637 404

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

EZKONTZAK

Joseba Apeztegia Eratsun eta **Laura Martinez Perez de Iriarte**, Ituren-
goa eta Iruñekoa, azaroaren 25ean, Itu-
renen.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen
atalean agertzea nahi badu, 948 635458 tele-
fonora deitu beharko du.*

SORTZEAK

Ander Bertiz Etxeberria, Elgorriaga-
koa, urriaren 11n.
Anai Altxu Huizi, Ituren-
goa, azaroaren 23an.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen
atalean agertzea nahi badu, 948 635458 tele-
fonora deitu beharko du.*



IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN

Urte osoan 24 orduko zerbitzua

Beilatoki zerbitzua Bortzrietan
baita eskualdeko etxeetan ere

T. 948 05 90 90

HERIOTZAK

Luziano Larrea Olano, Leitzakoa, aza-
roaren 22an, 76 urte.

Cruz Magirena Goienetxe, Amaiur-
koa, azaroaren 22an, 94 urte.

Francisca Etxegoien Igoa, Arizkun-
Elizondokoa, azaroaren 21ean, 92 ur-
te.

Catalina Villabona Saralegi, Leitza-
koa, azaroaren 26an, 91 urte.

Fulgencio Braña Igoa, Almandozkoa,
azaroaren 26an, 84 urte.

Manuel Vera Aleman, Almandozkoa,
azaroaren 28an, 84 urte.

Ascension Lizardi Iantzi, Urdazubi-
koa, azaroaren 28an, 97 urte.

Maria Felisa Sagarzazu Elizegi, Eli-
zondokoa, azaroaren 28an, 98 urte.

Maritxu Ordoki Almandoz, Arantza-
koa, azaroaren 29an, 89 urte.

Micaela Otxandorena Arrijuria, Le-
karozkoa, azaroaren 30ean, 69 urte.

Sabas Lukanbio Maiz, Arantzakoa,
abenduaren 2an, 87 urte.

erran

Mendialdeko Albisteak

TTIPI-TTAPA aldizkaria eta XORROXIN irratia
elkarrekin eskuko telefonoan eta tabletan

e ERABILI ETA
ZABALDU EDUKIAK



- Albisteak
- Agenda
- Komunitatea
- Xorroxin online
- Eguraldia
- Merkatu tikia
- Urtebetetzeak
- Bideoak
- Galeria

DESKARGATU
APLIKAZIOA DOAN



- ERRAN.EUS web bertsioarekin denbora errealean sinkronizatua
- ZU ZEU KAZETARI: nahi dituzun informazio eta argazkiak bidaltzeko aukera ematen dizu
- PERTSONALIZATZEKO AUKERA nahi den gai eta herrien araberako bilaketak egiteko aukerarekin

PILOTA → ABENDUAREN 1EAN EMAN ZITUEN SARIAK NAFARROAKO GOBERNUAK

Kirol Merezimenduaren Urrezko Dominak jaso dituzte Barriolak eta Irujok

24 Zilarrezko Dominetako bat Patxi Ordokik eskuratu du

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak Kirol Merezimenduaren bi Urrezko Dominak eman zituen abenduaren 1ean, Nafarroaren Egunaren harira. Hain zuzen, Abel Barriola eta Juan Martinez de Irujo pilotari ohiek jaso dute. Bertze 24 Zilarrezko Dominak ere eman ditu Uxue Barkos presidentek. Horien artean, Patxi Ordokik jaso du bat, 30 urtez pilotaren alde egindako lanarengatik.

Barkos Lehendakariak, lehenik eta behin, bi pilotari ohiek aipatu



ARGAZKIA: NAFARROAKO GOBERNUA

Aurtengo saridunak, Nafarroako Gobernuak eta parlamentuko ordezkariekin.

zituen, eta Nafarroan kirolaren bi erreferenteak direla erran zuten, ez soilik haien palmaresarengatik, pilotalekuan baruan nahiz kanpoan duten izaerarengatik baizik. «Zuen etengabeko apaltasuna, nortasuna eta hurbiltasuna ez da batere aldatu arrakas-

ta-maila handiak lortu dituzuenen. Eta horrek guztiak denok dakigun mirespena sortu du», azpimarratu zuten.

Abel Barriolaren inguruan adierazi zuten hiru pilota txapelketa nagusiak irabazi dituen pilotari bakanetakoa dela, baina batez ere ibil-

bidean zehar izan dituen balioak nabarmendu zituen: «profesionaltasun eta egoten jakite izugarria, galdutakoan nahiz irabazitakoan».

Eskerrak ematerakoan, Abel Barriolak ziurtatu zuten pilota nafar guztiak batzen dituen kirola dela, eta kirol-sa-

ri horiek jarri izana go-raipatu zuten, «politikariek kirolarekiko eta, ondorioz, gizarte osoarekiko, duten hurbiltasuna eta berotasuna erakusten baitute». Ildo horretan, deia egin zuten «haurrak Nafarroako kirolariengan arreta gehiago jartzea lortzeko eta ez soilik ekipo nagusien futbol-partidetan eta jokalarizarren itxura fisikoan».

Bertze 24 Zilarrezko Dominak ere banatu ditu Gobernuak, zuzendaritza arloan edo arlo teknikoan 25 urte baino gehiago eman dutenei. Horien artean dago Patxi Ordokik Larratxea. Sortzez aranztarra, 30 urte baino gehiago eman ditu pilota sustatzen Txaruta edo Erreka bezalako klubetan, baita Nafarroako Pilota Federazioan ere.

PILOTA → ERREMONTA

Xanti Uterga izan da Zirkuitoko aurrelari onena

Atzelarien artean Barrenetxea IV.a nagusitu da

TTIPI-TTAPA

Euskal Herriko (Gasteiz, Bilbo, Donostia, Iruña eta Baiona) eta es-

painiar estatuko (Xixon, Zaragoza, Iruña, Soria eta Madril) hamar hiriburutan ibilbidea egin ondotik, abenduaren 1ean banatu zituzten Iruñean Erremonte profesionaleko zirkuituko sariak. Aurrelarien artean, Xanti Uterga donostiarra izan da ga-



ARGAZKIA: JOSEBA ZABALZA

Erremontelari saridunak eta sari-emaileak, Iruñeko udaletxean.

raile, Javier Urriza eta Josetxo Ezkurraren aitzinetik, eta atzelarietan Endika Barrenetxea, Ion Etxeberria eta Joxe

Etxeberria III.aren aitzinetik.

Hiri horietan, minbizia duten haurren eta familien elkarrean alde jo-

katu dira jaialdiak, 10 jaialdi eta 30 partida dena eta azken partidara arte ez dira irabazleak erabaki.

gurea, denona

euskara

de todos y todas



abenduak 14 - urtarrilak 11

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.eus edo 948 63 54 58

Proiektzioak



DONEZTEBE | 2017.12.17

Alex Txikon mendizale euskaldunaren eskutik proiektzioa

Han eta hemen arrakasta handia izaten ari den Alex Txikonen *Everest, aparteko erronka bat* lana ikusteko aukera izanen da Doneztebeko Mendiaren Egurenaren baitan, abenduaren 17an, zineman.

Kontzertuak



LESAKA | 2017.12.30

Pepito Yanciren omenez erakusketa eta kontzertua Harriondoan

Lesakako akordeoilaria handia gogoan, erakusketa antolatu du abenduaren 9tik 30era Lesakako Musika Bandak. Horrez gain, abenduaren 30erako kontzertu berezia antolatu dute Harriondoan.

Kontzertuak



ETXALAR | 2017.12.17

Carlos Nuñez musikariak kontzertua eskainiko du Etxalarren

Nazioartean ere ezaguna den Carlos Nuñez musikaria Etxalarren ariko da abenduaren 17an, 19:30ean, elizan. Dagoeneko agortu dira kontzerturako sarrera guztiak.

Solasaldiak

BERA

'Aulki hutsa, bizitza eta heriotza' doluari buruz

Abenduaren 14an 19:30ean

Beralandetan. Hizlaria: Ainhoa Arburua psikologoa.

'Baztan-Bidasoa' liburuaren aurkezpena

Abenduaren 15ean

19:00etan Beralandetan.

ELIZONDO

Tomas Belzunegiren liburuaren aurkezpena

Abenduaren 15ean

19:00etan Arizkunenean.

'Baztan-Bidasoa' liburuaren aurkezpena

Abenduaren 22an 19:00etan

Arizkunenea Kultur Etxean.

ARANTZA

Nerabearoa hizpide izanen duten Guraso Eskola

Abenduaren 14an 16:00eta-

tik 17:30era Baskulan.

Izen-ematea: 948 635036 deituta edo ssb@lesaka.eus-era idatzita.

LEITZA

'Che mitotik haratago' Che Guevara gogoan

Abenduaren 14an 19:00etan

Che Guevararen inguruan hausnartzeko saioa, Ateka beltzen.

LESAKA

'Baztan-Bidasoa' liburuazAbenduaren 21ean udale-
txeko Batzar aretoan (19:00).

ZUBIETA

Miguel Mindegari eskainitako liburuaren aurkezpenaAbenduaren 22an 19:00etan
estalpean.

Erakusketak

ELIZONDO

Pedro Arizkurenen marrazketa eta margo erakusketa

Abenduaren 1etik 22ra

Arizkunenean.

LESAKA

'Pepito Yanci beti bizi'Abenduaren 9tik 30era
Harriondoa Kultur Etxean.

Antzerkiak

ARANTZA

Eskolako haurren antzerkiak

Abenduaren 15ean 14:30ean.

LESAKA

'Morbus operandi' Arranon

Abenduaren 15ean 22:00etan

(Bibote Gorriak taldea)

'Besaulkiak'

Abenduaren 16an 20:00etan

Harriondoan, Abarka Antzerki Taldearen eskutik.

Filmak

DONEZTEBE

Victor Volodin mendizale errusiarraren proiektzioaAbenduaren 16an *El leopardo de las nieves*,

19:00etan Zineman.

Alex Txikonen eskutikAbenduaren 17an *Everest, aparteko erronka bat* proiektzioa, 18:00etan zineman.

Ikuskizunak

ETXALAR

Txotxongilo emanaldia

Abenduaren 23an Gatz, titiritorito basatia taldea Herriko Ostatuan, arratsaldean.

PROPOSAMENA

ESKUALDEA

Eguberrietako ospakizunak

Abendua aitzinera doanez, gaurgero Olentzero eta Mari Domingi prest egonen dira herriz herriko bisitak egiteko. Sara izanen da bi protagonistek bisitatutako duten lehen-biziko eskualdeko herria. Bi egun beranduago joanen da gainerakoetara. Abenduaren 24an, Lesakan, Olentzero eta jaiotza lehiaketa ere egingen dute. Urtezaharretako kalejira eta lasterketen ondotik, 2018an urtatzak eta hiru errege magoak etorriko dira.



Tailerrak

GOIZUETA

Turroi eta mazapan ikastaroa

Abenduaren 16an 10:00etatik
13:00etara eskolako jangelan.

DONEZTEBE

**Begiraleendako hizkuntza
prestakuntza ikastaroa**

Abenduaren 28an eta 29an
Herrigunean. Izen-ematea:
abenduaren 21era arte, Baz-
tan, Malerreka eta Bortzi-
rietako euskara zerbitzuetan.

Kontzertuak

IGANTZI

**Igantzi Abesbatzaren azken
kontzertua**

Abenduaren 16an 20:30ean
elizan.

DONEZTEBE

**Mendi Abesbatzaren
Eguberrietako kontzertua**

Abenduaren 15ean
20:00etan elizan.

ETXALAR

Carlos Nuñezen emanaldia

Abenduaren 17an 19:30ean
elizan.

ARRAIOZ

**Baztango Musika Eskolako
ikasleen Eguberrietako saioa**

Abenduaren 16an 17:00etan
elizan.

DONEZTEBE

Olatz Zugastiren emanaldia

Abenduaren 23an 19:00etan
Zineman.

LESAKA

**Musika Eskolaren
Eguberrietako kontzertua**

Abenduaren 20an.

'Pepito Yanci beti bizi'

Abenduaren 30ean Pepito
Yanci gogoan bi saio eskaini-
ko dituzte: 17:00etan eta
19:30ean Harriondoan.

BERA

'Zotan total' musika jaialdia

Abenduaren 23an

Nire aukera



Jaione SEIN PETRIKORENA
Igantzi emakumea

*«Euskaraz aritzeko aukera
kontzienteki hartu behar da»*

Duela 44 urte, Beran jaio zen Jaione, baina bi urterekin Igantzi zira joan zen bizitzera eta geroztik hortxe egin du kabia. Garbi du nongoa den. Bera igantziarra da: «nire gurasoak ere hala dira, eta nahiz eta ez nintzen Igantzi jaio, zainak ongi errotuak ditu». Hiru semeren ama da, eta lana ere Igantzi egiten du. Gehiago ere kontatu digu: «ez dut nire burua Igantzi ez den bertze herri batean ikusten», baina aukeratu beharko balu, Lesakara joanen omen litzateke. Azaldu digunez, «gehienbat, musikarekin lotutako afizioak» ditu: «solfeoarekin hasi, eta akordeoia jo nuen garai batean, Giltzarri Abesbatzan aritu nintzen eta Igantzi Abesbatzan ere ibili naiz urte dezentez». Mendi buelta batzuk egitea eta bidaiatzea ere gustuko du. «Edonora» bidaiatuko omen luke, eta aukeratzekotan, «Australiara joanen nintzateke bolada baterako». Bertalde, euskararen egoerak ezinegon sortzen dio: «inguru euskaldunean jaio eta bizi arren, euren artean erdaraz ari direnak, zoritxarrez, gero eta gehiago dira».

**«Inguru euskaldun-
nean jaio eta bizi
arren, euren ar-
tean erdaraz egi-
ten dutenak gero
eta gehiago dira»**

Argi du: «adin tarte guztietan, euskaraz aritzeko jarrera kontzienteki hartu behar da. Gainerakoan, konturatu gabe, gaztelaniaz aritzen gara». Euskarak kezkatzen duelako Igantzi Euskara Batzordeko kidea da sorreratik: «Bortzirieta-ko Euskara Mankomunitatea sortu zenean, euskalgintzako gaiak sortu zigun kezka zela eta, Euskara Batzordean hasi ginen». 27 urte beranduago, «oraindik kezkatua» segitzen du: «kontzientzia linguistikoa badugu, euskaraz bizitzeko nahia, eta horrek euskalgintzako dinamiketan aritzeko beharra sortzen digu». Euskara Batzordeak antolatzen ditu, bertzeak bertze, berriki egin dituzten Kultur Egunak: «urteko kultur ekitaldirik garrantzitsuenak izaten dira eta azken urteotan aski interesgarriak eta aberatsak ateratzen dira». Herri «ttikia» izanik ere, Igantzi «bizirik» dagoela uste du: «azken hamarkadan, guttienez, 50 haur inguru mantendu dituen eskola badugu eta hainbat elkartetan ederki antolatzen gara. Herri bizia da, eta itxuraz, txukuna, polita... zer erranen dizut banik?». Baina zoriontsu izateko, «lehenbizi, nire burua maitatu» behar duela aitortu digu, «eta gero, egunerokoan, ahal den heinean, etxekoekin, lagunekin, ingurukoekin... momentuak bizi».

12:00etatik aitzinera.

Bazkaria eta musika maratoia
Katakun.

Ospakizunak

GOIZUETA

**Umore Ona Elkarteak
bazkideen bazkaria**

Abenduaren 14an.

EZKURRA

Mindegiari omenaldia

Abenduaren 23an.

SARA

**Olentzero eta Mari
Domingiren etorrera**

Abenduaren 23an.

ESKUALDEA

**Olentzero eta Mari
Domingiren etorrera**

Abenduaren 24an.

Lehiaketak

LESAKA

Olentzero eta jaiotza lehiaketa

Abenduaren 24an.

Kirol-hitzorduak

DONEZTEBE

Mendiaren Eguna

Abenduaren 16an eta 17an.

**Erreka Kirol Elkartearen
urteko azken mendi ateraldia**

Abenduaren 31n Mendaur-
rera, 07:30ean autobus
geltokitik abiatuta.

San Silbestre lasterketa

Abenduaren 31n 18:00etan.

BAZTAN

Mendigoizaleen irteerak

Abenduaren 17an Aizpitzatik
Bardakomendira (07:30).

Abenduaren 23an Lekaroztik
Legatera, 08:00etan abiatuta.

Abenduaren 30ean Erratzu-
tik Auzara, 08:00etan abiatuta.

San Silbestre lasterketa

Abenduaren 31n 17:00etan
haurrak; 18:00etan helduak.

LESAKA

San Silbestre lasterketa

Abenduaren 31n 13:00etan
Plaza Zaharretik abiatuta.

ETXEBIZITZAK**salgai**

ELIZONDO. Akullegi karrikan 2 logelako pisua salgai. Prezioa: 55.000 euro. ☎646 774117.

ITUREN. Hainbat neurritako apartamentuak hagitx prezio interesgarrian salgai. ☎948 451337 / 667 275013.

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

URDAZUBI

- Etxe berri bat salgai, mobleztatua. 2000 m²ko lursailarekin.

DONEZTEBE

- **Aukera:** 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mobleztatua eta 17 m²ko trastelekuak.

Tel. 948 580 804

anzabal@anzabal.com

ARANTZA. Herrigunean, etxea salgai, bi baratzeekin. ☎0033641 814786.

**ETXEBIZITZAK****errentan emateko**

BERA. Bidasoa karrirako 5. zenbakian, 80 m²ko etxebizitza errentan emateko. 2 logela, 2 komun, sukaldea eta jangela. Igo-gailua dauka eta mobleztatua dago. 2 trasteleku eta 2 garajeko marra. ☎680 549808.

MERKATU TTIKIA**948 63 54 58**

info@ttipi.eus edo erran.eus

SAIL HONETAN IRAGARKIA JARTZEKO 10€ ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO 12€
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako ES86 3008 0080 5607 0330 4329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

ANIZ. Hiru solairuko etxebizitza eraberritua errentan emateko. ☎676 194076.



BERA. Duplexa errentan emateko. Berria, oso argitsu eta haundia. Kapritxora dekoratua. Garajea hartzeko aukera. ☎637 915158/ 630 457347.

**GARAJEAK/LOKALAK**
salgai

DONOSTIA. Garajeko

marra salgai. ☎678 855056.

BERA. Agerra auzoan, 32 eta 25 m²ko lur azpiko bi garaje salgai. ☎660 854411.

**LANA****eskaintzak**

HAZPARNE (Lapurdi). Ardi eta behien baserri batean gazte bat behar dute, lehenik laguntzeko eta gustura baldin bada, etxekoekin negozioan segitzeko. ☎0033 698 313701.

DANTXARINEA. Mikelenborda jatetxean sukaldaria behar dute. Esperientzia duena. Egune-ko lana urtarrietik aurre-

ra, urteko lana. ☎690 388134 / 948 599045.

BERA. Eskulaneko klaseak emateko pertsona baten bila ari dira: patchwork, bolilloak, gantxilloa, puntua... ☎678 855252.

ELIZONDO. Bidegain arraindegian berehala lanean hasteko prest dagoen langilea behar dute. Lan finkoa, asteartetik larunbatera goizez aritzeko. Ezinbertzekoa da gida-baimena izatea. Interesatuak deitu, dendara joan edo curriculumak bidali: *info@pescadosbidgain.com*. ☎606 585163 / 948 580496.

LANA**eskariak**

Mutil batek **edo zertan lan** eginen luke, baita baserrian eta aziendekin ere. ☎631 876901.

Gizonezkoa lan bila, adi-

nekoak zaintzeko interno bezala edo orduka. Fisioterapiako ikasketak dituen eta esperientzia zaintza arloan. ☎612 421818.

LANA**klase-partikularrak**

LESKA. Klase partikularrak ematen ditut: matematika, fisika, kimika, ingelesa, hizkuntza... unibertsitate maila arte. Talde murriztuak. Esperientzia zabala klase partikularrak ematen. ☎605 762880 (Aitor).

MOTORRAK**salgai**

2007ko **Renault clio campusa** salgai; 166.000 kilometro ditu eta egoera onean dago. ☎610 058611.



Golf V. 2.0FSI 150 zaldikoa salgai. 159.000 kilometro. 2004ko azaroan erositua. IAT-ITV pasatu berria eta olio eta filtroak aldatu berriak. Beti garajea gordea. Hagitz egoera onean. ☎620 700964 / 661 845053.

**BASERRIA**

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(azaroaren 17tik 24ra bitarteko prezioak)

ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 41 €

Zerri gizena
1,028€ kiloak.

Zerramak:
0,560 € Kg/bizirik.

BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/k Kanal
Extra 4,35

1.koa 4,13
2.koa 3,93

Urruxak: €/k Kanal
Extra 4,37
1.koa 4,23
2.koa 3,83

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 160,00
idixkoak 210,00

Aretze nabarrak:
urruxak 140,00
idixkoak 185,00

Zaldikoak: €/k
Sortuberrak: 3,29/3,39
Zaldi-behorrak: 1,93/2,10

Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 8,00/8,60
8-10 kilokoak: 6,20/6,90

INDAUTO TAILERRAK *ELITE!*
Mekanika | Elektrizitatea
Pneumatikoak



Opel Corsa 1.4
Selective 90 HP 46.000km 2015. urtekoa



Citroen Berlingo
L600 1.6HDI 95.000km 2014. urtekoa,
2 plazakoa eta albo-atearekin

Pol. Ind. Oirdoki ARIZKUN - www.indauto.es
T. 948 453 488 - M 675 324 960

AVIA www.doneztebe.com

E.S. SANTESTEBAN

Leitzako errepidea, 49 | DONEZTEBE | T. 948 451 679

KOTXE GARBITEGI BERRIA! **FURGONETA GARBITEGI BERRIA!**

ShineTecs

"KONPONTEZ EFEKTUA" duen pintura babeslearekin

> "Acryllonic" formula patentatua. Argizaria baino hobea.
> Kapa babeslea indartzen du garbiketara bakoitzean
> Distirak denbora gehiago irauten duela bermatzen du

2,60m bitarteko furgoneta edo kotxea garbitu gurean!

BERAKO TAILERRAK

CITROEN
DIESELA



Etorri AUKERAKO KOTXEAK ikustera!

N-121-A errepidea 63 km BERA
T. 948 631 157 - 659 092 472

KATEA BIKE

2. eskuko bizikletak





Kanthonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
kateabera@telefonica.net

MOTORRAK
tailerrak

GANIX
Tailerra



948 63 06 69
Zalain Pol., 11 - BERA
EUROMASTER zegoen lekuan

ZERBITZUAK
zurgindegiak

ARANTZA
Zurgindegia.....

- Klase guzietako zurgin lanak
- Eskatu aurrekontuak konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea
Tel: 948 634 068 - 647 810 144
Gorritibaitea - ARANTZA


DENETARIK
salerosketak

ARANTZA. Taxi plaza salgai. ☎617 296458.

Altzairuzko sei fregadera salgai, 1,73 metro x 34 cmko neurria. Forma borobila. ☎948 585036.

Sukaldeko egurrezko ekonomika salgai. Egoera onean eta gutti erabilia. ☎644 907779.

bideo irteerekin. Sony definizio altuko **multimedia aparatua** ere salgai: DVD, disko gogorra eta HDMI, AV1-AV2, audio eta bideo irteerekin. Disko gogorrean eta DVD-grabatzeko aukera. 300 euro. ☎610 385867.



ANIMALIAK
oparitzeko

LEITZA. Hilabeteko hiru zakurkume oparitzeko. Hirurek emeak. Ama ardi-zakurra dute. ☎948 510224.

ttipi-ttapa

Koskontako bidea, 7 - 1 | 31770 LESAKA
T. 948 635 458 | erran.eus | info@ttipi.eus

KULTURKARI
DISEINU GRAFIKOA | PUBLIZITATEA
T. 948 635 458 | www.kulturkari.com

LOGOTIPOAK | KARTELAK | ARGITALPENAK | EGUTEGIAK | BOLETOAK
DROITGARRIAK | TXARTELAK | ORRI MUTUAK | POLTSAK
ESTILO-GIDALIBURUAK | LONAK | BINILOAK...

IREKITA
Herrian erosi, euskaraz erosi

Eman KOLEOREA mundu grisari!





OPARI FESTA

Ordena itzazu opari kaxa hauek handitik txikira.
Handienari 1 zenbakia eman, hurrengoari 2... Txikienari 8 zenbakia jarri



MARGOTU



ELURRA MENDIAN

Zenbat animalia ikusten dituzu?



INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eu/>



Kontsultatu soluzioak
plazanbazan.eu/kioskoa/soluzioak

urtebetetzeak

Argazki soilak: 5€; bikoitzak: 10€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,50€ko 10 edo 20 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 5 edo 10 €ko txekoa; 4) erran.eus bitartez



Arantza Iraia AROTZENAK abenduaren 21ean 6 urte beteko ditu. Auniz urtez familiaren partetik. Musu haundi bat. Disfrutatu eguna!!!



Iker AROTZENAK abenduaren 21ean 6 urte beteko ditu. Auniz urtez familiaren partetik. Musu haundi bat. Disfrutatu eguna!!!



Iraia eta Iker abenduaren 21ean 6 urte beteko dituzte. Auniz urtez bikote!!! Musu haundi bat. Disfrutatu eguna!!!



Oinatz Seinek 4 urte bete ditu abenduaren 3an. Zorionak familia guztiaren partetik eta bereziki Aialaren partetik. Zorionak pottokooo!!



Leire Urreaga Ibarrak abenduaren 13an 3 urte beteko ditu. Zorionak Sunbilla eta Elbeteko familien eta bereziki Janireren partetik!



Nerea Zubietako gure neska gazteak urteak beteko ditu abenduaren 28an. Kosta zaigu, baina ez zara libratu! Jijiji...



Aimar Bertiz eta Naroa Etxeberriak 6 eta 2 urte beteko dituzte abenduaren 14 eta 25ean. Zorionak eta auniz urtez Elgorriagako familiaren partetik, eta muhu haundi bat bereziki Aiala eta Anderren partetik.



Aimar Almandoz Tapia beratarrak abenduaren 11n 4 urte bete ditu. Zorionak familia guztiaren partetik, eta bereziki Urtzi, Unax, Ioritz, Laia eta Oihane arrebaren partetik.



Amaia abenduaren 18an urteak beteko dituzulako, muhu haundi bat eta ongi pasa eguna!



Atxa eta Ama! Laster zuen eguna ailegatu! Tiikia naiz, baina espero dut bazkari goxoa prestatzea, purea alde batera utzi eta tarta goxoaren zain egonen naiz. Xabat.



Totu gure bizikumeak urteak beteko ditu abenduaren 27an. Auniz urtez **Totu**! Hori da hori sasoi! Segi segi pedalari ematen! Muxu haundi bat!



Irati Perurena abenduaren 22an. Auniz urtez eta ongi pasa eguna printzesa! Atxa, ama, anaia eta ahizparen partetik 3 muhu pottolo-pottolo.

hemen agertu nahi duzu?

argazki soilak 5 EURO
argazki bikoitzak 10 EURO

ALDIZKARIAN eta INTERNETEN

Zinab zaki zinarek zaki zinarek... zinarek bet!!!

egin zure erosketa erran.eus en

LEITZALDEA TTIPI TXARTELA

Erakutsi eta probextu aukerak!

<p>Aritzela DEKORAZIO TALERRIA</p> <p>%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>%10 DESKONTUA 50€tik gorako erosketetan</p> <p>Landa Industrialdea-Suizpi, 3 LEITZA T. 948 61 06 11</p>	<p>edr'igunea</p> <p>%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>%10 DESKONTUA 50€tik gorako erosketetan ESTMEDERM markan ezik</p> <p>Elbarren, 67 LEITZA T. 948 51 02 73</p>	<p>ETXE TRESNAK S.L</p> <p>%10 DESKONTUA koltxo, somier eta burkoetan. Eskaintzetan izan ezik</p> <p>Elbarren, 45 LEITZA T. 948 51 02 08</p>	<p>FISIOETXEA Ane Etxezabal Lata Fisioterapeuta</p> <p>%10 DESKONTUA hamar saioko bonoan</p> <p>Uharte Gotzaia, 8-3-C LEITZA T. 948 51 07 30</p>	<p>Garbi drogeria - lurrindegia</p> <p>%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Huarte Gotzaia, 19 LEITZA T. 948 51 01 73</p>
<p>gatzelu sol Iturgintza</p> <p>%15 DESKONTUA bainugelako osagarrietan</p> <p>Elgoien, 32 LEITZA T. 948 51 00 86</p>	<p>HERNANDORENA</p> <p>%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Elbarren, 21 LEITZA T. 948 51 00 55</p>	<p>KAPRITXO</p> <p>%5 DESKONTUA erosketa guztietan</p> <p>Elbarren, 19 LEITZA T. 948 51 07 48</p>	<p>KULAN</p> <p>%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Uharte Gotzaina, 1-behea 4 LEITZA T. 948 51 36 20</p>	<p>Leitza Kafetegi Okindegia</p> <p>%5 DESKONTUA 25€tik gorako erosketetan</p> <p>Elbarren LEITZA T. 948 61 09 74</p>
<p>LEITZAHIROLAK</p> <p>%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Elbarren, 36 LEITZA T. 948 61 09 76</p>	<p>MAIMUR</p> <p>%10 DESKONTUA oparitzeko artikuluetan</p> <p>Elbarren, 15 - Herriko Plaza LEITZA T. 948 51 01 46</p>	<p>Olaia Bazar</p> <p>%10 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Landa Behekoa LEITZA T. 948 51 04 37</p>	<p>ttipi-ttapa</p> <p>%10 DESKONTUA esketan</p> <p>Koskontako bidea, 7-1. LESAKA T. 948 63 54 58</p>	<p>%5 DESKONTUA gozotegian 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Elbarren, 20 LEITZA T. 948 51 07 20</p>



BIZIKLETEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
GIMNASTIKA ETA
FITNESS MAKINAK
bizikleta estatikoak, lasterketako zintak...

2. eskuko bizikletak

Kanttonberri, 1 | BERA | T. 948 631 218 | kateabera@telefonica.net



ETORRI ETA SOLASTUKO GARA
*Eguberrietako
oparirik ederrena*



Ttipi Txartelarekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK

-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

699 aleko
irabazleak >



BKZ abentura - 2 tiket

Aintzane Mariezkurrena | BEINTZA-LABAIEN

Zugarramurdiako lezeak - 2 sarrera

Batista Arraras Bildarraz | BERUETE

Donostiako aquariuma - 2 sarrera

M^a Pilar Aleman Goñi | GARTZAIN

Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera

Paula Sanzberro Iriarte | SUNBILLA

Buatxabal - Kamiseta bat

M^a Isabel Arraiago Labaien | LEITZA

Okille tailerra - Eguzkilore bat

Pilar Goñi Arrastio | ELIZONDO

Ttartalo argialetxea - Liburu bat

Lupe Mendigutxia Etxebeste | BERA

Ttartalo argialetxea - Liburu bat

Marifa Irazoki Dendarieta | ZUGARRAMURDI

Gabonetako zozketak



Errigora produktuak,
liburuak eta musika
sorta bat



Errigora produktuak,
liburuak eta musika
sorta bat



Liburuak eta musika sorta bat